

1- AEZ, AE berria eta EBZ: definizioak, ezaugarriak eta ikerketaren egoera.

1. AE = hizkuntza baterako berreraikitako edozein egoera.
2. AE horren eta gaur egungo dialektoen artean, zerbaitetik egon behar du, dialektoek jatorri komun bat dutelako beti. Euskararen kasuan, dialektoak gaur egun elkarrengaindik hurbilegi daude eta ezaugarri komun asko dituzte (edo zituzten lehen lekukotasunetan; morfologia bera, maileguen portaera bera...), eta horregatik, jatorri komun hori ezin da denboran oso urruti egon, Mitxelena dix it. Hortaz, EBZ dialektoak bereizi aurreko azken egoera batua da, c. VI. mendea. Ezaugarri komun guztiek ez dute zertan EBZ izan; adibidez, artikulua beranduagokoa da, baina orokorra da.
3. AE berria (modernoa edo klasikoa), Mitxelenak berreraikitakoa da. Martinet-ek: k.a. 2. mendean erromatarrekin kontaktua hastean zegoen hizkuntza egoera dela dio. Mitxelenak: erromatarrak etorri zirenean aurkitu zuten euskara. Fonologian, fortis / lenis oposaketa (fonema guztiak); Morfo: *e-CVC formula agorturik, ez dagoelako egitura hori duen malegurik.
4. AE zaharra, Mitxelenak berreraikitako AEtik gorago doa. CVC erro kanonikoa. Monosilabismoa. Fortis / lenis oposaketarik ez. *e CVC...
5. EBZ eta AEM ez daude formalki bereizirik, eta hori zehaztu beharrekoa da. Akitanierazko lekukotasunen pisua ere neurtu behar da. Sintaxi diakronikoa hastapenetan dago.

“Euskara nondik datorren”: beti egongo da iritsi garena baino lehenagoko egoera bat, giza hizkuntzaren hasierara heldu arte, eta hori urrutiegi da berreraikitzeko. Euskarari beti deitu izan zaio euskara, baina orduko jendeak eta guk ez dugu hizkuntza berean hitz egiten. Egunduan diren hizkuntza naturalak, denak datoz duela 100.000 eta 200.000 urte bitartean Afrikan bizi zen arbaso hark, bere giza taldeak eta aldamenekoek hitz egiten zuten lehen hizkuntza horretatik (edo horietatik). Aztarnarik utzi gabe hil diren hizkuntzak berreraikitzea ezinezkoa da. Metodoak baditu bere mugak: alde batetik datuek ematen diotenetik atzerago ezin eginga (euskararen historian, Mitxelenaren lanarekin duela 2.000 urteko euskara baino ez genuen berreskuratu eta ikuspegi berriagoan ere beste 3.000 urte baino ez ditugu irabazi). Bestalde, ez dago datazio zehatzik ematerik; datazio erlatiboak soilik. Datazio zehatzak ematekotan, gertakari historikoetara jo. Hori da Mitxelenak EBZa kokatzeko erabili zuen metodoa.

Kronologia erlatiboak eta periodizazioa: Historiaurrean hainbat garai bereizteko modua aurkitu da. Euskarak honako garai ezberdinak: AE (ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik antzinakoena), AEZ (Lakarra berreraikitzen ari dena, CVC erako silaba bakarreko erroak zituena), AEB (Martinet-ek eta bereziki Mitxelenak berreraiki zuena).

Erromatarrekin kontaktua hastean) eta EBZ (ditugun datuekin berreraiki dezakegun garaietan gugandik hurbilena, euskalki historikoen ama-hizkuntza). AEZ: ez zuen Lakarrak datatu, baina Trask-ek (1997) dioenez, Mitxelenaren AEB baino askoz ere zaharragoa izan behar du. Edozein eragin IE baino lehenagoko euskara batez ari gara AEZaren inguruan hitz egiten dugunean. Iberierak euskararekin nolabaiteko kontaktu historikorik izan bazuen, baliteke garai honen bukaeran hastea (Brontze Aroa, k.a. 2. milurtekoa).

AEB: Martinet-ek: k.a. 2. mendean erromatarrekin kontaktua hastean zegoen hizkuntza egoera dela dio. Mitxelenak: erromatarrak etorri zirenean aurkitu zuten euskara. Erromatarrak k.a. 2. mendearen erdialdean iritsi ziren gure ondora Hispaniatik, eta k.a.

1. mendearen erdialdean Julio Zesarrek Galia osoa konkistatu zuen. IE-ren eragina agian bai zelten bitartez, eta iberierarena ere, baina latinarena oraindik ez. AE-ren bilakaera latinarekiko ukipenaren azpian: Martinet-ek (1955) uste du leherkari hasperendunen soiltzea (*th- > h) latina eta euskara harremanetan jarri eta gero gertatu zela. Neutralizazio sistema: badirudi EBZera iritsi baino lehenagokoa dela (*th- > h- eta t- > d-) hots leherkari bortitzen espirantizazioa eta ahulen ahostuntzea.
2. Leherkariak: AEZ AEB EBZ

Bereizi behar dira EBZ eta “euskara komuna”: euskara komuna ez da garai zehatz bat, baizik eta ezaugarri multzo bat = euskalkietan ditugun batetortzeak. Denak ez dira EBZtik etorriak: arkaismo gordeak (EBZtik datozenak), euskalki guztiak etorki berekoak direla erakutsi. Berrikuntza konpartituak: harremanak oso estuak direla erakusten dute; artikulua eta deklinabide historikoa adibidez (fonologia eta morfologia).

Euskara Batu Zaharra (k. o. 5-6 mendeak): ordurako erronboa genuen leherkarietan (lehenagotik ozen eta txistukarietan). Deklinabide urria, kasu gutxiagorekin eta mugatu singular ez pluralik gabe, artikulua bera ere falta. Aditzeko zenbait perifrasi garai honetakoak bide dira. Beharbada, “euskara komuna” izan arren ez dira EBZekoak, baizik beranduagokoak, eratorpenean eta konposaketan lehen osagaien aldaketak: “idi” + “aurre” > “itaurre”...EBZaren sorreraz: Gizarte egitura batua behar zen. Noiz gertatu zen euskalkien bereizketa? (a) /h/-ren galera 10. menderako nabarmena da Nafarroa Garaian. (b) “barri” / “berri” txandakatzeak 10-11. mendeetan. Hortaz, 10. mendea baino lehenago izan behar zuen. Zenbat eta zaharragoa egiten dugun EBZ, orduan eta euskalkien arteko ezberdintasun handiagoak itxarongo genituzke, eta ez dirudi hori gertatzen denik.

Komeniko litzateke, ahalik eta EBZ berankorrena proposatzea, diferentzia horiek txikiagoak bailirateke. Kontua da historialariek hain beranduko batasunik, eragile politiko eta ekonomikorik onartuko luketen. EBZaren zatiketa eta dialektoen sorreraz Euskara ez da hizkuntza `bateratua`; dialekto eta hizkeratan banatuta egon da eta dago. Egoera normala da hizkuntzetan. Euskararen berezitasuna, bi ezaugarriekin batera agertzea da: (1) banaketa izugarria hain eremu txikian, (2) araupeko hizkera estandarrik ez egotea. Euskalkien zatiketari buruzko bi iritzi nagusi:

(1) Euskalkiak hizkuntz egoera batu batetik datoz (Vogt 1955); EBZ ezin da euretarik oso aspaldikoa, ezberdina izan.

(2) Bestelako iritzia dute Lacombe-k eta Gorostiagak: bi euskalki, B etagainerakoak (B/G mugan etena vs. gainerakoen arteko mailakatze leunak). Sailkapen bitarra: Euskara = A (Bizkaiera) + B (Gipuzkera, Lapurtera,...) Bertsio gogorragoa Uhlenbeck-ek (1947): jatorriz bi hizkuntza desberdin ziren, eta kontaktu luze baten ondorioz hurbiltzen joan dira: Mendebaldeko hizkerak = Bizkaiera / Ekialdeko hizkerak = Gipuzkera, Lapurtera,... Hizkuntzek bat egitea gerta daiteke, baina horren ondorioa hirugarren hizkuntza bat izatean da, ez A ez B dena (pidgin eta kreolerak). Hau ez da gertatu.

B euskalki bat baino ez da: bazterreko dialekto guztiek ezaugarri bereziak dituzte (arkaismoak gordetzeko joera edota berrikuntza ugari hizkuntza kontaktuagatik). B ≠ Hiperbizkaiera, G ≠ erdi-gipuzkera. Testuak aztertuz gero, B/G arteko aldea gero eta handiagoa, 10. mendean txikiagoa.

2- HASPERENA: JATORRIAK, IRREGULARITATEAK ETA HORIEN AZALPENA

Lekukotasunen arabera, noizbait orokorra izan da euskaren eremu guztietan. Akitaniako zein Erdi Aroko datuek hori erakusten dute. Adibidez, Nafarroa ekialdean (Lerga), I. mendean: “ummesahar”, “abisunhari”. Araban ere, “helatse”. M. Pidal eta historialari gehiagok: “Errioxan eta Burgosen beste hainbat lekukotasun, non /h/ sistematikoki ageri den”. Gaskoiek “elforriaga” <f>= /h/.

Egun, Iparraldean mantentzen den ezaugarria Nafarroan X. menderako galdu zen. Hegoaldean gutxi gora behera XIII-XIV. mendeetan galdu zen. XVI. mendeko hegoaldeko lekukotasunetan ez zegoen “h” fonologikorik; “h”, hurrengo hotsa bokala zela adierazteko erabiltzen zen. “Refranes y Sentencias”-en, adibidez, hasperena agertzen da baina grafia hutsa da: “uevo” = “vevo” vs “huevo”. Bi formak bereizteko grafia da “h”.

Gavel-ek 1920an zioen AE-n ez zegoela “h”-rik, zegoenean modernoa zela eta Espainian ez dela “h”rik egon. Alabaina, Luchaire-k 1875an deuseztatu zuen, Gavelek ondoren esango zuena. Izan ere, “h”-a AE-n bazegoen, Akitaniako zein Erdi Aroko datuek frogatzen duten bezala. Ostein, Mitxelenak Las Antiguas Consonantes Vascas (1957) lanean argi utzi zuen aitzin euskararen fonema inbentarioan hasperena bazegoela, nahastu gabe herskari hasperendunekin, pentsatzen baitzuen beharrezkoa zela euskal lexikoa eta morfologia azaltzeko eta lotura ikusi zuelako azentuaren eta hasperenaren artean, azentuarekin erakutsi baitzuen lehendik ere hasperena zegoela.

Mitxelenaren arabera, hasperena ondoko bost ingurune hauetan ager zitekeen:

KOKAPENAREN PARTE HAU KEN DEZAKEZU, NIK USTE

1) Hitz hasieran (#__), bokal edo diptongo aurretik: “harri”, “hezur”, “haur”...

2) Hitz barruan, bokal artean (V__V): “ahate”, “ohe”, “ahalke”...

3) Diptongo eta bokal artean (dipt__V): “oihan”, “leiho”... [berria diptongoa da, ez “h”]. Salbuespen batzuk daude: lehiatu, Ohienart (Caro Barojaren lanetan agertzen da baina ortografia falta izan dateke, euskaraz orden hau ez baita ohikoa)

4) Ozen ondotik eta bokal aurretik (n, l, r__V): “elhe”, “senhar”, “urrhe”... Lergako inskripzioetan, *a.bi.sun.ha.ri* agertzen da akitanieraz. Silabaren banaketak erakusten duen bezala, *lh*, *nh* eta *rh* ez dira fonema bakarra, ozena ezkerreko silabaren amaieran agertuko da eta hasperena eskuineko silabaren hasieran.

5) Herskari ahoskabe hasperendunak; ez dira etimologikoak, ez baitute sistema fonologikoaren berreraiketean unitaterik eskatzen: “kheñu”, “ankher”... Gavelek euskara zaharrerako proposatu zituen baina euskaraz ez dira inoiz dokumentaturik egon.

Hasperenaren kokagune honek mugak ere bazituen:

1. Hasperena ez da agertzen bigarren silabatik eskuinera gaur egun: *anate*> *ahate* eta *ballena*>*balea* baina **baleha*. Era berean, *arena*>**areha*>*harena*. Beraz, **areha* hitzak, esaterako, erakutsi inoiz hasperena hirugarren silaban izan zela eta galdu zela.

2. Hitz berean bi /h/ baino gehiago ez dira agertzen garai batetik aurrera: *hil+herri*>*ilherri*. Izan ere, Grassmannen legearen arabera, bi hasperen daudenean, lehena galduko da: *h...h*> *Ø...h*. Dena dela, Mitxelenak murriztapen hau garai zaharretan existitu ez izana posible dela esan zuen.

Indargarri gisa, Donemiliagako hitz zerrenda: “Harhazua”, “Harahia”, “Hagurahin”... Toponimoek erakusten dute X-XI. mendean oraindik lege hori gauzatu gabe zegoela.

3. Herskari hasperendunak ezin dira joan txistukari/m baten ondotik. ***sth*, XVI. mendetik aurrera. Akitanieraz eta Erdi Aroko euskararen bestelako joerak ageri dira: Akitanieraz: *hontharris*, *hahanni*; Erdi Aroan: *Harriolha*, *Elhorzahea*.

Mitxelenak berreraiketaren oinarriko legea aplikatuz, jatorrizko hasperena eta hasperen etimologikoa bereizi zituen. Jatorrizko sisteman berreraikitze beharrezkoak diren unitateak soilik aukeratzen dira eta horren arabera Mitxelenak /h/ sisteman sartzen du. Baina badaude euskara modernoan zenbait /h/ jatorrizkotik ez datozenak, baina balio etimologikoa dutenak. Adibidez, *VnV > VhV* ez da jatorrizkoa, etimologikoa baizik.

Horrela, Mitxelenak balio etimologikodun hasperenak sailkatzeko lau sail proposatu zituen:

1) AE-ko “*h” zahar batetik letorkeena: “hortz”, “behi”.

2) Latinezko eta erromantzezko “f” batetik letorkeena; “f-” > “h-”. Euskaraz “f” fonema inbentarioaren barruan ez zegoen kontsonantea izanik, zaila da jakiten aldaketa hori euskararen barruan gertatu den edo zuzenean gaskoieratik horrela etorri zen: “forma” > “horma”.

3) Bokalarterko “-n-” ahuletik datozenak. *VnV > VhV*. Bokalarterko “n” ahulak, maileguetan edota jatorrizko hitzekin bokalarterko posizioan “h” eman du: “ahate”.

4) Hitz hasierako herskari ahoskabe edo bortitz batetik letorkeena; “Halsko” / “Talsko”, “harri” / “*kar”; hasierako posizioan dagoen “h”-ak leherkari bortitza eman du.

Hauetaz gain badira arazoak ematen dituzten /h/ak, eta Mitxelena horren jakitun zen jada:

(a) Etimologikoak ez diren /h/-ak (batez ere leherkarietara dagokienez). Analogikoak. “harroka” = “harri” + “roca”, “hezkabia” = “hatz” + “scabi”, “harma” = “armak hartu”

(b) Famili barneko kontraesanak dituztenak: *hire/eure*. Mitxelenak ez zuen *eure* azaltzen jakin, baina ez da zaila. Izan ere, Grassmannen legea eta gramatikalizazioa erabiliz, *hi-haur-e* izanik, lehenengo /h/a Grassmannen legearengatik galdu eta bigarrena, gramatikalizazioak, paradigma osoak galdu duelako, eta horrela azentua galdu da eta ondorioz hasperena ere bai. Baita *han*, *anartean/hazi*, *azaro/ahal*, *albait* modukoak: forma laburrenak eta zaharrenek /h/ izaten du eta formarik luzeenak /h/ gabe.

(c) Maileguetako /h/-ak. Maileguetan hasperenketa gehitzeko jatorrizko formetan ere azalpena behar dugu, maileguak jatorrizko formetara egokitzen baitira eta ez alderantziz.

Gainera, /h/a ez da eransten arrazoi partikularrik gabe, bestela VCVV egiturak zergatik ez du hasperenik eta *hareak* bai? Horretarako proposatu zuen Mitxelenak /h/etimologikoa.

hedoi, *hoge*, *herio*, Mitxelenarentzat ondare zaharrek hitzak dira.

hedoi/*herio*: silaba mugan C bat erori da eta euskaraz lau aukera bakarrik daude bokalarterean erortzeko: *b,d,g,n*. Aurreneko hirurak arrastorik utzi gabe erortzen dira eta *n*-a da marka uzten duen bakarra. Gainera, honen bidez *h*-a agertzea azal daiteke: *erino > *eriho > herio*; *edoni > *edohi > hedoi*. Aditzen banaketa ohikoa ere modu honetan erakusten dute: *e-don-i*. *-i* atzizkia partizipio marka da.

(d) Alternantzia dutenak: *hauzi/auzi; hildo/ildo*. Mitxelenak ez zuen azaldu baina Lakarrak: $h > \emptyset$ azal daiteke, kontrakoa ez. Beraz, /h/duna zaharrena eta gabea erorketaren bidez azal daiteke.

(e) Diptongo ondorengo hasperenak -*Vih-*: *saihets, oihu*... Mitxelenak lehen ez zegoen “h” bat gehitu dela esan zuen. Honen aurka, Lakarrak “h” ez, baizik eta “i” gehitu dela baieztatu ahal izan du, diptongoa sortuz. Beraz, lehen *sa-CVC (hets)* zena, gerora *i* tartekatua. *Oihun* ere, gaskoieraz dokumentatuko *ohu* bat daukagu, *i* gerora tartekatu denaren erakusgarri.

(f) /h/ morfologikoak: *jan + ari > janhari*: /h/ konposizio marka bezala sartua. Monosilaboetan ere, *hur, hon, hor* CVC normala da, beraz, *h* dutenek gorde dute, ez galdu.

Mitxelenak proposatutako 4 /h/ etimologikoez gain, badira /h/aren jatorri etimologikoa laguntzen dutenak, nahiz eta Mitxelenaren sistemaren barruan jarraitu:

5. *-r > -hV: fenomeno morfologikotzat hartzen da: (*h*)ur— *uhalde, uharte; zuhaitz*. Zenbait kasutan, bigarren osagaiaren /h/ konposizio eta deribazio zaharretan mantentzen da, hemen kasu. Arrazoiak:

1. Lotura morfologikoa: Igartuak dioenez, azaleko ekibalentzia da honakoa: alomorfo oinarritzkoetan, konposizio eta deribazioetan /r/ agertzen da eta besteetan /h/.

2. Bigarren osagaiaren hasierako /h/ berezkoa. Zenbait erro antzeko erregela aplikatzen dena: *hor, hortz, hordi, *hohtso, *hohzar, +hohara, hohalano*.

**hohtso > *ohtso*otso*: Grassmannen legearengatik lehenengo /h/a erori da. Ondoren, bigarren /h/a kontsonante aurretik erori zen. Honen erakusgarri da bokal artean ez dela erori: **hohara > ohara*.

*hor+alano > *hohalano*: *hor*: r>h; Grassmannen legea.

Bestela oso aukera gutxi leudeke hVC erroa aurkitzeko: *hor, hur, *har, *her*.

**her-tz >* hertsu: /r/ dugun bitartean, /h/ gordetzen da.

**har* ugariagoa da: **har + din > adin*.

6. Gaskoitik hartutako maileguetan agertzen direnak. Batzuek h □ h- eman dute eta beste batzuek $h > \emptyset > tx > z$ (*hors-abiatur > txorabiatur > zorabiatur*)

7. Metatesia $hVR > VRh$ □ *ilhargi* “hilaren argia”. Mitxelenak hau azaltzeko bi bide:

1) /h/ *hargirena* izatea

2) /h/ konposizio marka bat izatea: *hil + argi*.

Baina bada azalpen ekonomikoago bat. Nolabait esateko, /h/ak eskuinetara mugitu dira ondorengo adibideetan, eta hau ozenen ondotik gertatzen da.

alha (eusk.) *hala* (gask.)

elhe (eusk.) *hele* (gask.)

Honek zenbait kronologia egiteko ere balio du. Gaskoitik hartuak zein ondare zaharrekoak izan, /h/-ak bigarren silaban ozen ondoren tokia aurkitu du, baina ez edozein momentutan.

Honekin guztiarekin, kronologia erlatibo bat ematen du Lakarrak: *h₂ > h₁ dirudi zaharrena, eta hau indargabetu ondoren, beste biak (*h₃ > h₁, eta h.....h > Ø.....h) gertatuko ziren. Adibidez: “*heu-hun” > “ehun”. Grassmann-en legea bai, baina *h₂ > h₁ ez. Kronologikoki Grassmann-en legea bigarren lekuan dago, lege hau emateko *h₂ > h₁ agertu behar duelako. Hirugarren lekuan *h₃ > h₁ bilakabidea dago: “*hilherri” > “ilherri”.

Bilakabide hau guztia IV. mendearen ondoren gertatu zen “n” > “h” gertatu eta gero. Mitxelenak, geroztik, hasperena euskaraz azentuarekin loturik doala eta hasperena azentuaren ondoren ezin dela egon dio.

HEMENDIK AURRERAKOA EZ DAIDA HORREN GARRANTZITSUA IRUDITZEN

Traskek /h/ nondik sortzen den azaltzeko azentuarekin lotutako erregelak ematen ditu: 1. Hasperenaren fonematasunaren aurka. 2. Salbuespen gutxi batzuekin, euskaraz / h / ak ez dira etimologikoak. Beraz, bi / h / mota bereizten ditu:

1. Hitzak bereizteko balio dutenak: Balio etimologikoa □ “ari” / “hari” / “ahari”
2. Esanahia bereizteko balio ez dutenak: Balio etimologikorik ez □ “behar”.

Martinetek eta Mitxelenak azentuari buruzko iritzi ezberdina zuten. Martinetek euskal azentua 1. silaban dagoela dio, eta Mitxelenak 2. silaban dagoela.

Izan ere, Mitxelenak dio hasperenak azentuaren ezkerretara egon behar zuela ez erortzeko. Azentua ezkererantz joan den heinean, hasperenaren kokalekua mugatu da, eskuin muturrekoak galduz. Galeseran ere halako zerbait gertatzen da, non azentua libre xamarra zen eta pixkanaka-pixkanaka murrizten joan zen, hasierako azentu librea murriztuz eta ezker muturreraino mugatuz. Gainera, hasperena azentudun silabetan bakarrik agertzen denez, azentuaren eta hasperenaren arteko korrespondentzia dagoela pentsa daiteke.

h _ h _ h _ h _
h _ h _ h _ *h _
h _ h _ *h _
h _ *h _

Baziren hasperenak 3. silaban ere, ez ordea 4. silaban: “herio” < “*e-ri-ho”, “jario” < “*e-da-li-no” (“n” > “h” ez zen gertatu, 4. silabatik datorrelako).

Kontsonante hasperendunek, berriak direnez, ez digute balio euskararen hasperena eta azentua azaltzeko: “phértute”, “phíke”...

3- Aditz jokatugabeak eta perifrasiak: egitura eta historia. Zein da zaharrago?

Euskaraz, gaur egun, hiru aditz jokatugabe mota ditugu: aditzoinak, partizipioak eta aditz-oinak. Aditzoinek egitura hau dute: batetik, latin-erromantzeko maileguetan, latineko -tu partiz. atzizkia kenduta sortu dira, euskararen barruan. Ondare zaharrekoek, ordea, askoz egoera finkoagoa dute: e (-da)(-ra)-CVC.

Partizipioei dagokienez ere, bereizketa bera egin behar da: mailegaturikoek lat.-errom.eko -tu gordetzen dute (-du mendebaldean). Ondare zaharrekoek, baina, e (-da)(-ra)-CVC-i egiten dute. Jakina, partiz. egiteko bide hori agortuta zegoen latinarekin kontaktua hasi zenerako, eta ez dago

mota horretako partiz. duen mailegurik. Alderantziz, latineko -tu euskal morfologiara sartu da eta ondareko partizipioetara hedatzen ari da.

Aditz-izenak honela egiten dira: aditzoina + te (zaharra, testuetan tze hartzen dio lekua) eta + tze egiten dira ((k)eta mendebaldean). Gaur egun, aditzoinaren gainean baino, partiz. gainean eraikitakoak ere hedatzen ari dira.

Horietarik zaharrenak, ondarekoez hitz eginez, aditzoinak dira gainerakoak horren gainean eraikiak direlako.

Perifrasiei dagokienez, lau perifrasi bereizten dira euskaraz:

1. ‘aditzoina + edin / ezan’: testuak hasi eta berehala desagertzen da egitura hori balio asertiboarekin. Zaharrena da, lehen testuetatik desagertzen egoteaz gain, aditz gramatikalizatueneekin egiten delako, aditzoinaren gainean, hau da, jokatu gabe zaharrenaren gainean, eta inguruan ez duelako paralelorik.
2. ‘partiz + izan/edun’: hau da mailegua izateko aukerak dituen bakarra, erromantzeetan ezagunak eta ohikoak direlako ‘partiz. + edun’ modukoak. Partizipioa laguntzailearen osagarri moduan interpretatzeari utzi eta [A.NAG+ A.LAG] bezala interpretatzen hasiko zen, eta hortik izan laguntzailera hedatuko zen.
3. ‘aditz-izen.INES + izan / edun’: inguruan ez du paralelorik eta hori ere berranalisiz hedatuko zen: ‘[(aditz-)izena.INES] + [izan]’ > ‘[aditz-izen burugabea + izan]’ eta hortik edun sartu.
4. ‘partiz. + eroan/joan/eraman’: ohiturazko perifrasi. Ez da pentsatzekoa mailegatua denik.

Aurreragoko fase batera joanez gero, baina, aditz jokatu gabe eta perifrasi zaharragoak aurki daitezke. Trasken bidetik, onartuta *datoreko da-* aurrizkia dela eta balio burutu gabea ematen diola eraikuntzari, gramatikalizazio kateak esaten digu: AURR<A.LAG.<A.NAG.. Hortaz, uneren batean ‘A.LAG+A.NAG.’ egitura bat izango genuke, hau da, perifrasi, egungo euskarazkoak baino askoz zaharragoak. Gainera, onartzen ariko ginatke uneren batean bi aditz nagusi izan direla ‘*DAR ‘jarri’ + TOR’. Horiek ez dute *e-* aurrizkirik eta, ondorioz, CVC aditzak, jokatu gabeak eta zaharragoak izango genituzke.

Jokatu gabeak:

1. aditzoinak: egitura hau dute...
2. aditz izenak: ...
3. partizipioak...

Perifrasi hau da: blablabla, eta euskaraz konbinazio hauek daude: (azpikoa)

Zaharrenak: aditzoinak (gainerakoak horren gainean eraikirik daudelako) eta aoristoa (paralelorik ez, testuetan fase sparita...).

dator perifrasiat har daiteke: serial verb: *dar (balio burutu gabea) + tor (esanahia). Hori perifrasi zaharrena, eta CVC aditz jokatu gabez osatua □ hori a. jokatu gabe zaharrena

- Aditz perifrastikoak:

1. Aditz oina + *edin / *ezan:

Perifrasi zaharrenentzat jotzen dira. Gainera, perifrasi hauek badituzte gaur egun desagertuak diren balioak. Adibidez, “etor nendin”, XVI. mendean aoristo zahar bat izango balitz bezala itzuliko genuen, baina gaur egun, “etorri nintzen” esanahia hartu du.

2. Partizipioa + izan / *edun:

Honen sorrerak besteari lekua kendu dio. Aditzei dagokienez, adierazten duten aspektu,

moduaren... arabera bi taldetan banatzen dira: a) Aditz atelikoak: Bukatzen ez den ekintza bat adierazten du, hala nola “ikusi”. b) Aditz telikoak: Adierazten duten ekintza muga bat da, adibidez “etorri”. “Aprobaturko dut” bezalako adizki perifrastikoak maileguak dira eta latinezko perifrasi jakin batetik hartutako egitura dute. Emaizta bat adierazten duen perifrasiak bada, jatorrizko balioa “erresultatiboa” da. Gaur egun euskarazko erresultatibo ohikoak “etorria da” bezalakoak dira.

3. Partizipio + joan / *eroan:

Euskal Herri osoan aurkitzen dira, eta horregatik (argudio dialektala) perifrasi zahartzat jo. Joan / eraman aspektua adierazteko erabiltzen dira, ohikoa den bezala beste hizkuntzetan.

4. Aditz izena + izan / *edun:

“egiten naiz”, “egiten dut”-etik dator. Aditz izena + inesioa + aditz kopulatiboa. Inesibozkoek aditz iragangaitza eskatzen dute munduko hizkuntzetan, eta horregatik pentsatzen da horrela gertatu dela euskaraz.

5. Partizipioa + -ko / -en: Partizipio genitibodunak dira, gaztelaniazko “he de venir” bezalakoak.

6. Ari izan: “egiten ari naiz” / “egiten ari dut” bezalakoak sartzen ari dira gaur egun. Aditz nagusiak erabakitzen du zein hartu.

- Aditz trinkoak (barne-morfologia): Erdi Aroko datuak garrantzitsuak dira euskararen historia jakiteko. Euskarazko lehenengo esaldi dokumentatuetan ikus dezakegu aditz trinkoak ageri direla: “...dugu” (Donemiliaga, X-XI), “...Garidario” (goitizena da, baina adizki trinkoa da, 1366, Nafarroa), “...Badarraigu” (1366, Nafarroa), “Yladaçancelaya” (1460, Aramaio)...

- Adizki trinkoak nola berreraiki:

XIX. mendez geroztik eztabaida 3. pertsonako morfemen inguruan. Forma asko bereizten dira denboraren arabera, polimorfismoa: d(a)-, z-, b-, l-. Trask-en proposamena: Hauek ez dira pertsona markak, 3. pertsonan daukagun marka bakarra Ø da. d-, z-, b- eta l- aspektuarekin erlazionatzen ditu. Baieztapen hau SV Oren aztarnatzen edo argudiotzat hartzen du. Adizki trinkoen berreraiketa 3. pertsonatik bideratzen du: “da-tor”, “e-tor”. da- eta e- aspektua direla dio. Beraz: *na-dator > nator, *ha-dator > hator © * Ø-dator > dator.

Hau da, 3. pertsona jatorrizko formatzat hartzen du, gainontzeko pertsonentzako ere. Izenordainak, horri loturik, paradigma osoa sortzen da. Stassen-ek “X-kin Y” bezalako egiturekin lotzen du Trask-en proposamena, aditz inpersonalen erabilerarekin. Schucardt-ek “-o” eta “-e” erakusleekin lotzen ditu. Datiboaren markaren jatorria “eman” aditzean bilatzen da, eta “eman” berreraikitzeke, bere “emon” aldaera aztertu behar da.

4- EUSKAL ADITZ SINTETIKOEN URRITASUN ETA MODERNOTASUNAZ

Euskal aditz sintetikoaren urritasunaren eta modernotasunaren inguruan hitz egiten ari garenean, azpimarragarria da esatea ez direla sekula oso ugariak izan, asko jota bi dozena. Aldiz, e-CVC motakoek bakarrik izango dira urrienak, izan ere, erromatarrek etorri orduko ez zirelako gehiago sortu. Gainera, horietako asko -da- eta -ra- gehituta sortu dira, hortaz, berez, are gutxiago daudela esan beharko genuke.

Gómez-ek (1994) Trask (1977) jarraiki laburki aipatu zuen euskal aditzaren garai inperzonalara ongi dator hizkuntzaren egitura analitikoagoa eta isolatzaileagoarekin. Ezkerreko pertsona komunztadurak ez ziren hor 'betidanik' eta eskubiko berriagoak askozaz gutxiago, jakina: orain, gainera, modua, aspektua edo denbora markatzeko hizkiak ere ez direla betidaniko baizik eta multzo-aditzen gramatikalizazioaren ondorioz eta ondoren.

Nik, halere, sintetikoa azterketan bertan sakondu nahi dut. Ezin onar liteke AE-k inoiz 240 bat aditz sintetiko baino gehiago izan zuenik; are gehiago, ezta horiek ere, frango **e-Ø-* / **e-da-* / *-ra-* aurrizkien gonbinaketatik baitator: *"e-bil-i"* / *"e-ra-bil-i"*, **e-gon* / **e-da-gon*... Eta beste asko are atzizki berriagoen bitartez sortuak: **edun* / **edun-ts-i*, **e-ban-i* / **e-ban-ts-i*... Egia esan, erro soil jokatuena zerranda hurbilago da bi dozenetarik berrehunetarik baino. Kontua da, bada, guk antzeman genezakeen neurrian, euskarak aditz-sail (aditz jokatuena saila) mugatua izan duela hizkuntza erromanikoen, germanikoen eta beste dutenaren kontrara, baina yurokaren eta Ipar Ameriketako eta, batez ere, Australia eta Ginea Berriko askoren edo gehienen antzera.

Marka dezadan latin-erromantzeetatiko mailegaketan izan dugula beti, bestetara jo gabe, garai zaharragoetako sintetikoaren urritasunaren frogara, ez alderantziz. Zerk azal lezake handik hartutakoaren artean segurtasun osoz sintetiko bakar bat ere ez izatea? Ez ote eredu horren falta edo eskasiak egin zuela guztiak partizipio bezala hartzea?

Noa pixkat atzera. Ikusi dugu Trask-ek *"da-*" aurrizkia ezagutu zuela aditz jokatuena adizkietan eta aspektu markatzaile azaldu ere. Horrezaz landa, *"da-*" hori lehenago aurrizki nahiz laguntzaile ere izan zitekeela zioen, baina bigarren aukera hori ez zuela garatuko. Batera zein bestera *"da-*" horrek lehenago aditz oso edo nagusi behar zuen eta, hortaz, *"daC"* behar zuen izan aditz erroen forma kanonikora iristeko.

Bada, goian aipatu ditugun aditz australiarren miatzen direnean, Merlan-ek (1979) dioskunez, bisilaboen zatiren bat (lehenena zein bigarrena) hizkuntza bereko aditz gehiagotan eta are beste hizkuntza batzuetan ere errepikatzen omen dira, morfema aske zein lotu gisa.

Hots, oraingo erro bisilabiko horiek lehen monosilabo konbinaketak ziren, dela [Nag + Lag], dela [Lag + Nag] aditz multzoena. Gramatikalizazioaren aztertzaileek dioskutenez, *"lie"* 'etzan', *"stand"* 'egon' eta, batez ere, *"sit"* 'jarri' dira mundu mailan era honetako perifrasiak egiteko erabilienak.

Euskaraz, -C betetzeko aditzaren forma kanonikoak bost aukera baino uzten ez dizkigunez (**e-dal*, **e-dan*, **e-daR*, **e-dats*, **e-datz*) zein izango ote lehendabizi multzo-aditz asimetriko bateko elementu bigarrenkari menpeko bilakatua, gero perifrasi laguntzaile gisa eta azkenik aditzaren aurrizki moduan gramatikalizatu? Galdera erantzuteko lagungarri ezagun zela **dar* – *"adar"* – *"larr(i)"* – *"jarri"* hitz-familia, **dats* – *"adats"* – *"lats"* – *"jaitsi"*-ren antzera ere.

Aditz-multzoak oso egitura markatuak dira tipologikoki; izan ere, multzo-aditzeko hizkuntzetan ez da aditz-jokaturik egoten. Hortaz, onartzen badugu *"da-tor"* moduak **dar-tor* aditz-multzo batetik datozeela, onartzen ari gara euskarak ez zuela aditz jokaturik jatorrian. Gainera, euskara with hizkuntza izan delako zantzuak ditugu, eta hizkuntza horietan aditzak jokatu gabeak izan ohi dira.

Gómezen bidetik, gainera, nahiko erraza da aditz jokatuena sorrera azaltzea: euskara VSO hizkuntza zen, baina lehen posizio absolutuan ezin zen aditza joan. Izenordainek beteko zuten hutsune hori: ‘ni dator’ eta hortik sortuko lirateke ‘nator’ modukoak.

5- ERRO MONOSILABIKOAREN TEORIA ETA AEZ-AREN BERRERAIKETA

Mitxelenak duela bi mila bat urteko AE berreraiki zuen, baina, jakina, hizkuntza-egoera oro aurreko egoera batetik dator eta, horregatik, gorago jotzen saiatu beharko genuke. Horretarako guztirako, beste hizkuntza-familietan erroak ikertu izan dira (Indoeuroparrean, besteak beste). Zergatik ez saiatu euskaraz? Horretarako, ondareko lexikoa aztertu behar da.

Ondare hitz gehienak bisilaboak dira, baina badaude hiru silabako batzuk. Horiek azaldu beharrekoak dira; adibidez; arran-i eta ardan-o. Eta bisilaboak gertuagotik aztertzen baditugu?

Adibidez, *beltz*, *bel-tz bezala deskonposa daiteke; izan ere, euskaraz badaude horbel (horri+bel), ubel (morea, ur+bel), harbel (harr(i) + bel). Gainera, baditugu *sabel* eta *gibel* (bata gorputzaren aurreko aldea eta bestea atzekoa); gainera, gibela organo iluna da. Azken bi horietarako, baina, sa- eta gi- duten hitzak aurkitu behar dira, eta badaude: sa-min (min badago egun ere eta lotura gardena dago bataren eta bestearen artean) eta gi-zen.

Adibide horiek, jada, eratorpena dagoela iradokitzen digute: aurrizkia + CVC.

Hurrengo pausua lexikoko beste elementuak CVC eredu horrekin erkatzea izango litzateke. Adibidez, zur-i, hor-i eta gorr-i koloreak eramatea oso erraza da, partizipiotzat hartze baditugu. Gainera, beste aditzoinak e(-da)(-ra)-CVC oso erraza da CVCra soilik eramatea, are gehiago *da-tor* modukoetan e- gabe aurkitzen baditugu.

. BEHIN-BEHINEKO ONDORIOAK.

(1) - Lan honetan 1995ean argitaraturiko batean lehendabizikoz markatutako errohertsapen baten (**TVTV) formula orkor eta esaguratsua goaren (**CVCV) eta horren hurbileko eta urrutiagoko etorkiez eta ondokoez aritu gara. 1995ean erroeredu honen falta (gauzatzen diren hitzak askorekin gehienik mailegu (“bake”, “bike”...) edo eratorri-konposatu (“bada”, “begi”...) zahar edo berri izaki) lehenagoko erro bisilabo guztienarekin lotzen nuen zuzenean, Uhlenbeckengandik, euskal erro zaharrak gehienbat bisilaboak zirela zioen ustearen aurka.

- Geroztik ez dut ikusten arrazoirik azken ondorio hau aldatzeko aitzineuskara zaharrenarentzat: etimologia-lanak hasixeak baino ez badira ere, lehen bisilabotzat genituenak orain monosilabo konbinaketaren bitartez edo mailegu gisa (“*ardano”, “*gatzana”) azaldu ahal bide ditugu.

- Ez dut aurkitu eta inork ez du deskribatu aurreko bibliografian, bisilabo > monosilabo aldaketa prozesu orokor zahar eta zabalik; badira, bai, “bat” < “barda”, “dut” < “*duda” eta beste zenbait baina gutxiegi eta garbiegi, eta modernoegi ezertarako itxura guztien arabera. Areago dena, leherkariak dituzte amaieran monosilabo moderno horiek, -T ezinezkoa dugularik AE-z. Ez dirudi, orobat, “ke” ≈ “eke” eta beste zenbait bikotek ere bisilaboen lehentasuna ezartzen lagun bide gaitzakeenik: kasuak gutxi dira, (Nafarroako) esparru are urriagokoak eta azentu mota jakin bat lotutako arrazoi ezezagunekoak ditugu. “torri”, “kusi”... ezin, bada, bisilabo ≈ monosilabo alternantziatzat aurkeztu, are gutxiago euskalki guztiak edo gehienak ukitzen dituen alternantzia orokortzat.

(2) - Hainbat dira erro-eredu bisilabiko horietan berrikuntza (mailegu, aldaera zein eratorpen-konposatu gisa) zaldu ahal ditugunak eta gehiago ere izango bide dira horretara jarritz gero erro horietarik ezagutuko ditugun (5)eko kideak.

- Lehendik susmatzen genuen bezala, TVTV-ren ezintasunak eta monosilabismoak jatorrizko lexema-erroek (hots, partikula gramatikalak, onomatopeiak, mailegu eta gainerakoez at) silaba-buru zein silaba-buztan –T saileko hotsez landakoa beharrezko zutela erakutsi uste dut. CVC zen, dirudienez, AEZ-ren erro kanonikoa, C-, -V- zein –C horien aldaera eta ugalketa ugariekin. 1995eko lanean ere nahikoa argi geratu zen C- horren beharra ere monosilabo modernoetan eta, zehaztasun gutxiagorekin, orduan –CC bikoitza ere onartzen baikenuen, isatsekoarena ere. Gogotan badugu –T ezinezko dela, horrenbestez edozein –TV (bai TVTV eta baita RVTV, SVTV zein hVTV ere) ezinezko dira –V atzizkiarekin; izan litezke, ordea, CVR-V eta CVS-V, “*barr-u” eta agian “*larru” zein “hez-i” edo “gaz-i” bezalakoak, -V horiek mozterakoan dakusagunez.

Baldin eta –TV atzizkia proposatzen bada, orduan erro monosilabikoak CV, silaba ireki hutsez osatua beharko du izan. Ez da horrelakorik ordea, euskara modernoan ere eta ez da ikusten kontrakoa zergatik berreraiki goragoko garaietarako.

- Badira arrazoi zehatz eta garrantzitsuak CVC erro-eredu hori (eta ez besterik) zela esateko AEZ-eko lexemena:

(1) CV erako zenbait morfema (“lo” eta “ke” adibidez), CVC zaharrago baten aldaera ez diren neurrian, onomatopeia edo fonosinbolismo fenomenoekin lotuak direla nago, beste hizkuntza batzuetan bezala.

(2) CVCC erroetan (“hortz”, “bortz”, dagoeneko ezagunetan, esaterako) –CC horiek (kasu guztietan “Rtz”) hitzaren izaera ez soila baina atzizkidunaren seinale izan behar dute. “*hor-tz” (cf. “can-ino”, “*bor-tz” (cf. “borobil” eta “*pen-que”)... Horrela zatika ezin direnean gogoan izan beharko dugu inoiz –CC mailegu-ezaugarri ere (bakar edo beste aztarrenen baten kide, cf. “pertz”) izan litekeela: gogora antzeko aztarna ezagunetarako “baradizu” / “paraiso” edo “zekürü” / “sekula” famatuak.

(3) CVC baino erro txikiagoak (CV-, demagun) ez direla lexemetako erro-eredu onargarri uste badugu, “*la-gun”, “*la-bur”, “*sa-bel”, “*sa-kon”, “*sa-mur”, “*gi-zen”, “*gi-bel”... ez lirake konposatu arruntak, `aurrizki-erro` konbinaketak baizik. Aurkako aukera CVlehenagoko CVC higitu bat dela suposatzea litzateke, baina –C > Ø aldaketa ez da konposaketa-eratorpenean ez bestetan Erdi Aroa baino lehen lekukotzen.

(4) Oraingoz bederen, **CV eta **VC erro hertsapenak lotuak bide dira konposatu bisilabo kodagabeen (goiko **CVCV haren eta baita **CVCVC nahiz **CVCCV lagun) ezintasunarekin ere.

Honek guztiak, bada, ez soilik **TVTV eta **bisilabo / polisilabo hertsapenak baizik eta baita **CVCV, **V- eta **-V ere, eta are **CC ezartzera garamatza, lehenagotik ezagutzen genituen **CC- eta **-T kanpo.

(3) - Gehienok izan gaitezke ados erro-eredu batek mailegaketa ugaria, hitz eratorpenkonposaketa eskasa eta (5) saileko etimologia ezezaguneko kide gutxi baditu erroeredu horrek ez duela aukera handirik oso zaharra izateko. Orobat, baldin eta beste erro erro batek puntu hauetan juxtu kontrakoa erakusten badu, orduan ere ez bide

genuke zalantzarik bere zahartasuna aldarrikatzeko.

- Mailegu portzentaiena da erizpide negatibo bakarra: hots, CVfV ereduak % 60 mailegurekin lekukotutako erroen artean ez dirudi AE-rako ez beranduagoko garaietarako oso hautagai ona; orobat TVTV % 42'18-rekin. Hobexeagoak CVCrenak % 7'8-rekin; are gehiago, zifra hau % 6'2-ra jaisten da dagoeneko `biluztutako monosilaboak` kontuan harturik eta etorkizunean, gutxi edo asko, proportzio hori jaitsi egingo da itxura guztien arabera, polisilaboen etimologiak aurrera egiten duen neurrian. Ezin itxaron daiteke horrelakorik, noski, eredu bisilaboetan.

(4) - (C)VVCV-k bai CVCV eta baita (C)VCCV eta (C)VCCVC baino zaharrago dirudi bi taula hauek gogoan; hau honela frogatuko balitz, monosilabo zaharraren hazkundera hasiera batean ez atzizkien (-C)V bitartez eta ez konposatuaren ildotik (CVC + CVC) baizik eta aurrizki eta zatikako erreduplikazioarenetik izan zela ondorioztatu beharko genuke.

6- Euskal maileguak eta mailegu teoria: maileguen egokitzapena eta honek zer dakarkion hizkuntzaren historiari.

Hizkuntza ororen lexikoan bi talde nagusi bereizi behar dira: batetik, ondare zaharreko hitzak; bestetik, maileguak. Maileguak nagusiki latinetik eta lau erromantzetatik (gaztelania, nafar erromantzea, gaskoiera eta frantsesa) sartu dira euskarara. Euskara bezalako hizkuntza isolatu baten kasuan, eta lekukotasunak, oro har, horren berriak izanik, funtsezkoa da maileguak eta maileguk hizkuntzan sartzean izan zuten portaera aztertzea. Hori egin zuen Martinetek, lehenik, herskariekin, eta Mitxelenak, beranduago, gainerako kontsonanteekin.

(Jatorria) Euskal maileguak hizkuntza eta garai ezberdinetakoak dira, baina oparoenak eta ezagunenak, erromantzetatik hartutakoez gain, latinetik harturikoak dira. Izan ere, latina eta haren historia oso ezagunak dira eta, mailegurik zaharrenak izanik, hizkuntzaren fase zaharrago bat ziurtasunez arakatzeko aukera ematen dute. Egon litezke, jakina, beste hizkuntzetako maileguak, baina ezezagunak dira edo ez dute berreraiketarako ondorioz ekartzen.

(Egokitzapena) Maileguak normalean egokitu egiten zaizkio hizkuntza hartzailearen egitura fonologiko eta morfologikoari. Hortaz, egokitzapenaz hitz egin behar dugu. Jarraian alor bakoitzean euskal maileguk jasan dituzten egokitzapenak aztertuko ditut.

Maileguen ekarpena hizkuntzaren historiari. Maileguetan gordetako aztarnek laguntza eman dezakete hizkuntzaren garai zaharragoez ezer jakiteko, dela hizkuntza hartzailearen dela emaitza garaiez. Latinetik hartutako maileguak eta horien bilakabideak aitzin-euskararen sistema fonologikoa berreraikitze oinarritzeko lekukotasunak izan ziren Martinet Mitxelenarentzat.

Martinetek latineko maileguetako herskarien portaera aztertu zuen. Honakoak izan ziren ondorioak:

hitz-hasieran: hasperendun / goxo aurkituko genituzke

hitz-barruan herskari/goxoago (ahostun)

hitz-amaieran ez dago *-T

Hortaz, lenis/fortis oposaketa proposatzen du sistema fonologikorako

Ondoren, Mitxelenak Martineten proposamena indartzeko argudioak bilatu zituen, eta oposaketa txistukari eta ozenetara zabaldu zuen.

Txistukariak: hitz-hasieran lenis: s/z; hitz-barruan benetako oposaketa s, z/ts, tz; hitz-bukaeran bortitz (ts/tz)

Sudurkari eta albokarietan berdin n-; -n/-N-; -N;;; l-; -l/-L-; -L

Dardarkari: **r-, hitz-barruan r/R; bukaeran -R

/m/ eta /f/ ez jatorrizko fonemak, beste modu batera azal daitezkeelako (/p/ Mitxelenak ez zuen argi, baina gaur badakigu ez zela)

Hortaz, inb. Fonologikoa honakoa izango litzateke:

b d g z,s r n l

- t k tz, ts, R N L + HASPERENA

HEMENDIK AURRERAKOA OSAGARRIA IRUDITZEN ZAIT, BAINA EZ BEHAR-BEHARREZKOA

Hori gutxi balitz, maileguk aldaketen kronologia erlatiboa ulertzen ere lagun dezakete. Latin-erromantzeetatik hartutako maileguetan hiru talde bereizi behar dira: latin garaikoak, aitzin-erromantzekoak eta erromantzekoak.

1. Latin garaikoak. bake bezalakoak ditugu, latin arrunteko aldaketak (/k/>/ts/ / _e,i) baino lehenagoko latinaren ahoskera islatzen baitute.
2. Aitzin-erromantzekoak. zero bezalakoek aitzin-erromantzeko garaian jartzen gaituzte, /k/>/ts/ / _e,i aldaketa gertatu baita: lat. coelu /kelu/ > lat. arrunt. *tzelu /ts/ > eusk. *zelu. Euskaraz hitz hasierako txistukari afrikatua frikaritu egin da, ahulak bakarrik onartzen zirelako kokapen horretan. Gero zelu > zero aldaketa gertatu da (l > r / V_V). Klase bezalakoak oso berriak izan behar dira, muta cum liquida taldeagatik. Hasiera batean, kultismoak izan ezean, halakoek herskaria galdu edo bokal epentetikoak erantsiko zuten k.o.-ko edozein mendetan, beharbada azken mendean izan ezik.

Fonologia mailan hots arrotzak hizkuntza hartzailearen hots hurbilenarekin ordezkatzeko dira. Hotsez gain, egitura fonologiko arrotzak ere hizkuntza hartzailearen fonotaktikaren galbahetik igarotzen dira. Hona hemen euskarari dagozkion zenbait adibide: 🗨 /f/ hotsa. Euskal fonologian halako hotsik ez zegoen garaian badirudi euskarak bortitz/ahul oposaketa zuela. Hori dela eta, /b/-rekin ordezkaturik azaltzen zaigu, horixe baitzen ezpainerietan hurbilena, /f/-ren ahultasunari begiratuta. Adb. lat. ficu > biku. Geroago, herskarietan ahostun/ahoskabe oposaketa gailendu zenean, /p/-rekin ordezkatu zen, /f/-aren ahoskabetasunari begiratuta. Adb. paltsu, peria, pesta, inpernu... 🗨 Muta cum liquida taldeak. Euskarak ez zuen kontsonante-bilkurarik onartzen eta horiek ekiditeko estrategia desberdinak erabiltzen zituen. Batetik, epentesia erabil zezakeen, kontsonante-bilkuraren eskuinean zegoen bokal berbera txertatuz. Adb. libru > liburu; gratia > garazi; fronte > boronte; granu > garau

Bestetik, hitz hasierako kontsonante-bilkuretan herskariak gal zitezkeen: Adb. gloria > loria; claru > laru. Nolanahi ere, hedadura handiko, denbora luzeko eta harreman estuko ukipen-egoeretan, fonema berriak sor daitezke hizkuntza hartzailean. Hots, haren fonema inventarioa aldatzera irits daiteke, baita haren fonotaktika ere. Euskararentzat proposatu

ditugun bi adibideak, hala /f/ nola muta cum liquida taldeak, biak onartu egin dira gerora, nahiko bakan eta bazterreko badira ere. Euren onarpenaren kronologia aztertzeke dagoena arren, ematen du azken mendean egin dutela sarbide gehiena.

Bestalde, maiz gertatzen da hitz bat era batera eta beste bat bestera egokitu izana, baita batzuetan hitz beraren egokitzapen desberdinak egotea ere. Ikus ditzagun zenbait adibide: ■ Latineko /f/-k hitz hasieran emaitza oso desberdinak ditu euskaraz, are hitz berean ere: lat. filu > eusk. piru, phiru, firu, biru, iru... ■ Lat. cruce > eusk. gurutze, gurutz, kurutze, krutze, kurutxe, krutxe, kurtxe, kutze, kutxe, gurtze, grutze...

Arrazoiak bi dira. Batetik eta nagusiki, gara ezberdinetako maileguak dira, hau da, garaian garaiko egokitzapenak jasan dituztenak. Bestetik, batzuk ahoskeran oinarrituak izan daitezke eta beste batzuk idazkeran. Egokitzapen morfologikoak. Hizkuntza hartzailearen morfologiari ere egokitu behar zaizkio maileguak. Esate baterako, gurea bezalako hizkuntza batean sartzeko, izenek deklinabidea jaso behar dute, eta aditzek partizipioaz gain aditzoia (Iparraldean behintzat) eta aditz-izena sortu behar dute.

Baina bestelako egokitzapen bereziak ere gertatzen dira: ondare zaharreko hitzak bailiran agertzen diren mailegu “mozorrotuez” ari gara. Adibidez: ■ pertz < **per-tz. Oraindik ez dakigu zein den jatorrizko forma, baina badakigu mailegua dela, ez dagoelako **per errorrik. Badakigu, ordea, zein ereduren arabera mozorrotu den: CVCC erroa da (hartz < *har-tz, hortz < *hor-tz), CVC erroei -tz bezalako atzizki kontsonantikoak erantsi zitzaizkien garaikoa. ■ negar < lat. lacrima. *la crima bezala berranalizaturik, bilakabide hau izan du: *crima > *kirma > *girma > *girna > *nirga metatesiz > *nerga dardarkari aurreko irekitzeaz > negar. Hitz honen mailegututasuna sumatzeko bidea ez digu erroaren formak eman, hasierako kontsonantearen bakantasanak baizik.

7- EBZ: ZERGATIAK, OINARRIAK, HELBURUA :

“Euskara nondik datorren” beti egongo da iritsi garena baino lehenagoko egoera bat, giza hizkuntzaren hasierara heldu arte, eta hori urrutiegi da berreraikitzeke. Latina une batetik aurrera “gaztelania” deitzen da. Euskara beti “euskara” deitu izan da, baina ezberdintasun asko izan ditu: antzinako jendeak eta guk ez dugu hizkuntza berean hitz egiten. Lekukotasunak urriak eta berankorrek dira eta ez dago familiako hizkuntzarik. Horregatik, barne-berreraiketari helduta, euskararen aitzin-egoerak berreraikitzen dira. Aurreko fase horiek, ordea, euskara izaten jarraitzen dute, aitzin-euskara alegia. Izan ere, hizkuntzaren aurreko faseak, aztarnak uzten dituzte, eta horiei tira eginda gora egin daiteke euskararen historian.

Euskara, baina, dialektotan banatuta ezagutu dugu beti. Dialektoen eta AERen artean, ordea, zerbaitek egon behar du, dialektoak azken jatorri komun bat dutelako beti. Euskararen kasuan, dialektoak gaur egun elkarrengandik hurbilegi daude eta ezaugarri komun asko dituzte (edo zituzten lehen lekukotasunetan; morfologia bera, maileguen portaera bera...), eta horregatik, jatorri komun hori ezin da denboran oso urruti egon. Izan ere, erromatarrak etorri aurrekoak edo, batzuek proposatu bezala, aitzinako leinutatik eratorriak balira, oso bestelakoak izango liriateke elkarren artean, baita hizkuntza desberdintzat hartzeko modukoak ere. Errealitateak, ordea, beste zerbaitek esaten digu. Dialektoak funtsean oso antzekoak ziren XVI. mendean eta urrunduz joan dira.

Hortaz, euskara batu bat proposatu behar dugu dialektoen jatorrirako. Hori izango litzateke EBZ. Mitxelenaren arabera, Erromako Inperioa desegin ondorengo izan behar du, VI. mende

ingurukoa. Hala ere, ezaugarri komun guztiek ez dute zertan EBZ izan; adibidez, artikulua beranduagokoa da, baina orokorra da.

Alde batetik, datuek ematen diotenetik atzerago ezin egina. Euskararen historian, Mitxelenaren lanarekin duela 2.000 urteko euskara baino ez genuen berreskuratu, eta ikuspegi berriagoan ere (Lakarra 1995) beste 2 edo 3.000 urte baino ez bide ditugu irabazi. Bestetik, ez dago datazio zehatzik ematerik; datazio erlatiboak soilik. Datazio zehatzak ematekotan, gertakari historikoetara jo. Hori da Mitxelenak EBZ-a kokatzeko erabili zuen metodoa.

EBZ-ren sorrerari dagokionez, gizarte egitura batua behar zelako izan zen. Meillet-ek esan zuen bezala, (1925): hizkuntza batuak zibilizazio batua behar du. Baina, noiz gertatu zen euskalkien bereizketa? /h/-ren galera 10. menderako nabarmena da Nafarroa Garaian eta “barri” / “berri” txandakatzek 10-11. mendeetan. Hortaz, 10. mendea baino lehenago izan behar zuen.

Horren aurrean Mitxelenak ondorioztatu zuen euskaldunak bisigodoen aurka bildu zirela eta (5-6 mendeetan) orduantxe izan zitekeen halako egoera bat. Baina, eredu historiko zaharkitu batean oinarritu zen, Euskal Herria monarkia franko eta bisigodoaren arteko tirabira-puntu batean egonik, baliteke 6-7 mendeetan bertako tokian-tokiko agintariek, Inperioaren gainbeheraren ondoko egoera berrian euren lekua aurkitu nahian, batzuetan frankoen kontra, bestetan bisigodoen kontra aritzea, eta ziurrenik bestetan elkarren lehian ere. Garai hartako lurperatzeko moduek adierazten dute kontinentalak zirela, euskaldunak `iparrera begira` zeudela, frankoen aldera, batasun etnikoa sortzea.

Laburbilduz, zenbat eta zaharragoa egiten dugun EBZ, orduan eta euskalkien arteko ezberdintasun handiagoak itxarongo genituzke, eta ez dirudi hori gertatzen denik. Komeniko litzateke, ahalik eta EBZ berankorrena proposatzea, diferentzia horiek txikiagoak bailirateke. Kontua da historialariek hain beranduko batasunik, eragile politiko eta ekonomikorik onartuko luketen.

8- Erro teoria: oinarriak eta garapena

Azkuek erro zaharra monosilabikotzat zuen. Lafon-ek eta Uhlenbeck-ek aldiz euskal erro ñabar eta anitza aurkeztu zuten (aditz-erro monosilabikoaren aldean, izenki-erro disilabikoa, batzuen eta besteen barnean ere egitura fonematikoari dagokionez azpisail ugari direlarik). Trask-ek (1997) AE-ren fonotaktikaz eta morfema egituraz gauza garrantzitsuak esan zituen; euskarazko V- aniztasuna... Trask-en erro kanonikoaren formula [(C1) V (C2) C3 V (C4)]. Uhlenbeck-en zerrendak baino murriztago bada ere, zabalegia. Meillet eta Sapir-ek erakusten dute anomalia historikoak berreraiketan interesgarri direlarik, euskarazko erroaren egiturak (historikoki dituen irregularitate guztiak kontuan izanik) iraganean urruti eraman gaitzakeela. Uhlenbeck-ena da oraintsu arte izan dugun euskal erroen sailkapenik hoberena edo bakarra (Lafon-ek 1950ean ere gero jarraitua):

Uhlenbeck-en sailkapena:

(a) Erro monosilabikoak:

(1) Bokalez amaituak: “khe”, “lo”...

(2) Diptongoz amaituak: “gau”, “gai”...

(3) Kontsonantez amaituak, ugariagoak: “hil” “lan”...

- (4) Afrikatuz amaituak, ugariak: “antz”, “hats”...
- (5) Erreduplikatuak, ez oso ugariak: “gogor”, “konkor”...

(b) Erro bisilaboak:

- (1) VCV eta CVCV, ohikoak eta berezkoak: “aho”, “begi”...
- (2) VCVC eta CVCVC, usukoak: “adin”, “gizon”...
- (3) VCCV eta CVCCV, usukoenak: “argi”, “zaldi”...
- (4) VCCVC eta CVCCVC, ohikoak: “argal”, “bazter”...
- (5) Diptongoarekin: “oihu”, “garai”...

(c) Erro trisilaboak: VCVV eta CVCVV, arraroak: “egia”, “herio”...

Uhlenbeck-en sailkapenaren inguruan esan dezakeguna: sail eta azpisail horien artean guztiek ez dute garrantzia ez kopuru bera. Nekez pentsa liteke erro erdu guztiak AEtik datozela eta ez zaigu ezer esaten euskara historikoan eta AEn ezin izan zitezkeenez. Lakarra (1995)ean CVC erro monosilabikoa proposatu nuen AE-rako, zaharrerako bederen. Proposamen honek, ordea, azaltzen zituen, bai, orain arte aipatu murriztapen guztiak (**T₁V₁T₂V₂, *V₁-, *-V₁), baina ezinezko egiten zituen, gainerako bisilabo eta polisilabo guztiak ere.

AE-rako erro monosilabikoaren teoria berriaren lehen emaitzak:

1- CVC izanik proposatutako erroa, orduan ezin onar zitezkeen “hortz” eta ez “pertz” ere erro zahar horien artean. CVC forma kanoniko horretatik gora direnak soilik eratorri-konposatu izan daitezkeenez, erro eta afijo zahar ihartuak ez eze maileguak ere agertzen dira.

2- Erreduplikazioak argitu ziren, lehen ezagut zitezkeenak baino ugariago: “odol”, “adar”, “zezen”... lehenagotik ezagutu “gogor” eta “gog”-ri gehituaz. “Samur”, “labur”, “sakon”, “gibel”... hartzen baditugu, “sa”, “la” eta “gi” aurrizkiak ateratzen dira. Hasiera batean erro gisa hartu arren, ez du erroen tamainarik eta -C erorketarik ezin onar genezakeen, beraz hor aurrizkiak ditugu ezer izatekotan.

3- CVC erro monosilabikoak euskara eta edozein hizkuntzaren artean egin litekeen edozein erkaketa zehazten, mugatzen eta oinarritzen du. Erroaren forma kanonikoa benetan epe luzeko ezaugarria baita argiro.

Erroa eta etimologia formalak. AEZerako CVC erro kanonikoa proposatzeak (ez soilik maileguetan edo eratorrietan) **T₁V₁T₂V₂ eta gainerako bisilabo eta polisilabo guztiak bilakatzen ditu ezinezko. Oso emaitza desagokoa dirudi, asko baitira euskara historikoan bisilaboak eta polisilaboak, eta baita CVC ez diren hainbat monosilabo ere.

Ondoko bost multzotan koka genitzake euskara modernoko edozein erro-sailtako hitzak:

(1) maileguak, (2) aldaerak, (3) eratorri-konposatuak, (4) fonosinbolismoak eta (5) etimologia ezezagunekoak. Soilik (5)ekoak dute aukeraren bat EBZko izateko; alabaina, aukera duten arren, ez da oraindik segurtasunik. Etimologia gabe geratu direnak, horiek EBZekoak izango dira. Bi iragazki dira gainditu beharreko: fonotaktikoa eta geografikoa.

Ohartzekoa da erro eredu monosilabikoaren eta gainerakoen arteko ezberdintasuna: lehendabizikoak izan zitezkeen erroetarik %-eko aipagarria lekukoturik du, lekukotasun horietarik mailegu gutxi eta etimologia ezezagun asko, eta azken hauen artean ia guztiek gainditzuten dituzte irizpide fonotaktiko eta geografikoak; bisilabo gehienek oso

lekukotasun-portzentai eskasak dituzte eta portzentaiak izan zitezkeen erroen osokoa txikia denean igotzen dira soilik.

Ondorioak

1-Lehen bisilabotzat genituenak orain monosilabo konbinaketaren bitartez edo mailegu gisa (*ardano, *gatzana) azaldu ahal bide ditugu.

2- Badira arrazoi zehatz eta garrantzitsuak CVC erro-eredu hori (eta ez besterik) zela esateko AEZeko lexemena:(a) CV erako zenbait morfema, CVC zaharrago baten aldaera ez diren neurrian, onomatopeia edo fonosinbolismo fenomenoekin lotuak dira, beste hizkuntza batzuetan bezala. (b) CVCC erroetan –CC horiek hitzaren izaera ez soila, baina atzizkidunaren seinale izan behar dute. –CC mailegu ezaugarri ere izan liteke. (c) **CV eta **VC erro hertsapenak lotuak bide dira konposatu bisilabo kodagabeen ezintasunarekin ere. Honek guztiak, bada, ez soilik **TDTV eta **bisilabo/polisilabo hertsapenak baizik eta baita **CVCV, **V- eta **-V ere, eta are **CC ezartzera garamatza, lehenagotik ezagutzen genituen **CC- eta **-T kanpo.

9- AE klasikoaren sistema fonologikoa: oinarriak eta emaitzak. Ustezko alternatibak eta sistema zaharragorako urratsak.

PREMISAK ETA LANABESAK

Tradizionalki Neolitikotik gaur arte iraun duen hizkuntza bailitza begiratzen zaio euskarari; behin ere aldatu gabe, alboko hizkuntzek kutsatutakoa alde batera utzita. Adituen ikuspegia oso bestelakoa: euskara historiaren menpe aldatuz joan da. Nola aldatu den, zertan aldatu den... horixe aztertuko dugu. Hasieran, adituek ez zuten uste euskararen historiaz (historiaurreaz, hobeto) informazio baliagarririk lor zitekeenik. Arrazoiak: euskara hizkuntza bakartua zenez eta lekukotasunak oso modernoak zirenez gero, familiarik ez zuena, metodo konparatzaileaz aztertzeko aukerarik ez zuen ematen, eta hura izan orduan metodo bakarra.

Saussure (1916), Meillet (1925): “euskara beste hizkuntzaren batekin parekatzeko modurik aurkituko ez balitz, ez legoke haren historia sekula egiteko inolako itxaropenik”. Ondorioz, ahalegin gehienak euskararen familia aurkitzen egin izan dira. Ez da ezer aurreratu. Mitxelenak, barneberreraiketa aurkeztu zuen euskararen historia berreraikitze lanabes arazotsu baina ezinbestekotzat. Izan ere, hizkuntzen historia berreraikitze Haas-ek (1969) proposatutako lau bideetatik bati heldu zion eskura dugun materiala beste era batera aztertzeari alegia.

Horrela, maileguak aztertuta, aitzineuskararen fonologi sistemaren berreraiketara iritsi zen. Aitzindari bat izan zuen, Martinet Europako estrukturalismoaren buruetakoa eta fonologia diakronikoaren sortzailea, lehenengoz euskal hotsak sistema baten partetzat hartuta aztertzeari ekin ziona.

BOKALAK

Munduko beste hizkuntza guztiak bezalaxe, euskara ere historiaren mende dago, hau da, aldatuz joan da. Beraz, bere sistema fonologikoaren oinarriak ere ezin dira denboran zehar tinko mantendu.

Hasteko, bokal eta diptongoen gainean arituko naiz.

Euskal bokalen bilakaeran bi ezaugarri nabarmen daude: alboko hotsen eraginez erraz aldatzen dira eta hoge mendeetan zehar (gutxienez) oso iraunkorrak izan dira, hizkuntza erromanikoekin konparatuz.

Gaurko euskalkietatik abiatuta bost bokaleko sistema bakun batera iritsi gaitzke berreraiketan (a, e, i, o, u). Mitxelenak ez zuen atzerago egiteko arrazoirik, ezta beharrik ere. Z-z eta BN-ko Amikuze eta Bardozeko hizkeretan /y/ <ü> dago, baina argi dago baldintza konkretuetako /u/-ren emaitza dela. Gainera, mailegu zaharren egokitzapenek erakusten dute, orain bezalaxe bost bokaleko sistema bakuna geneukala. Izan ere, latinaren hamar bokalak bostera pasatu zire, luze-labur bereizketa kontuan hartu barik.

*u > ü aldaketa berria da, EBZ-aren ondokoa, eta ez bokalismo zaharrago baten hondarra. Izan ere, aldaketa erregular baten ondorio izan da: *u > ü. Hala ere, salbuespen jakin batzuk daude non *u > u prozesua gertatzen den:

___ r / V ___ V eta ___ # □ *gü / gure, guri; hirur; barrur...*

___ r + T (heskari horzkaria) □ *urde, urdin, urthe* baina *bürki, ürzo...*

___ s' □ *uste, busti* baina *güzi, hüts...* (salbuespen: *üstel*)

Diptongoei dagokienez, Mitxelenak bost diptongo eraman zituen AE-raino: *au, eu, ai, ei, oi*. Badago seigarren bat, *ui*, baina sekundariotzat jo dezakegu forma zaharretan oso banaka agertzen delako (*Otadui*). Gainera, maileguetan ere agertzen da: *fruitu*. Dirudienez, *-oi*-ren ixtearen ondorioz sortua da. E-z diptongo sudurkariak daude, baina hauek ere sekundarioak dira, bokalarteko *n*-aren galeraren ondorio direlako, bokal sudurkariak bezalaxe.

Nolabaiteko zahartasuna duten diptongoez esan genezake, batetik, batzuk iraunkorrak izan direla: esaterako, *au* diptongoa, mailegu zaharretan (causa > gauza) nola ondare zaharreko hitzetan (akit. Laurco, eusk. lau(r)) gordea ikusten baitugu. Antzeko zerbait esan dezakegu *oi* diptongoarekin, ondare zaharreko hainbat formatan aurkitzen baita: *goi, goiz, noiz, ot(h)oi, ot(h)oitz...* Hala ere, sekundariotzat jo beharko genuke *oe* hiatoaren bilakabidetik sortua delako: *goi* < **go-e*, *noiz* < **no-(e)z*, *othoitz* < **otho-(e)z...*

Oso nabarmena da diptongoen maiztasuna goraka joan dela AE-tik aurrera. Euskaraz diptongoak gutxi dira, eta direnak ere nahiko egongaitzak. Gero eta diptongo gehiago ditugu eta azken silabetan gehiago aurkitzen ditugu, silaba hauek sufritu baitute higadura nabarmena. Halaber, diptongoak ugariak dira, fonosinbolismoetan, fonosinbolismoz sortutako aldaeretan (*haundi*) eta hitz adierazgarrietan.

Aipatutako ezaugarri hauek kontuan hartuta, argi dago diptongoak oro har berriak direla, eta oraindik ez direla sistematan egonkortu. Honek, berarekin dakar, diptogodun hitzak zahartzat emateko ezintasuna.

Diptongoen gainean esandakoa kontuan hartuz, ondorioz, *j* eta *w* irristariak ez dira AE-koak.

KONTSONANTEAK

Kontsonanteei dagokienez, herskarien, ozenen eta txistukarien gainean jardungo naiz. Horretarako, zenbait hipotesi plazaratuko ditut.

Nahiz Schuchardt, Uhlenbeck eta Gavel (1920) bezalako adituek euskaren fonetika historikoa ikertu zuten, inolako hertsapenik gabe aritu ziren.

Gavel-ek / bh, dh, gh / herskari ahostun hasperendunak berreraiki zituen, nahiz munduko hizkuntzetan oso hots bitxiak izan eta euskara historikoan horien arrastorik ez ezagutu. Schuchardt-ek ez zuen ez aitzineuskara ez aitzinhizkuntzatan sinisten.

Martinet-ek ikerketaren oinarriak aldatu zituen, ikuspegi estruktural baten beharra aldarrikatuaz, hots, ez hots honen edo haren bilakabidea, sistemarena baizik kontuan hartu behar dela erakutsiaz.

Martinet-ek jakintzat eman zuen euskarak aldaketa fonetiko erregularrak jasan dituela. Esate baterako, Euskal Herrian bizi den elebitausn egoera, baita hizkuntzaren diglosia egoera zenbaitetan.

Latinetik eta erromantzeetatik etorritakoek osatzen dute euskarak hartu dituen maileguetan talderik zabal eta seguruena. Euskal fonetika aztertzeke ez dago arlo egokiagorik.

Maileguak euskaraz egokitzerakoan pairatutako aldaketak azter daitezke, garaian garaiko euskara nolakoa zen ezagutzeko:

(1) Zaharrago eta jatorrizko formatik gertuago. Latin garaian sartu ziren maileguek ez dituzte pairatu erromantzeetan pairatu dituzten aldaketak:

eusk. “gerezia” < lat. “ceresia” /ke-/ > gazt. “cereza” /0e-/. Hitza hartu baikenuen erdaraz “ke” > “*tze” > “ce” /0e-/ aldaketa gertatu baino lehenago.

(2) Zaharrago eta aldatuago. Latin garaian sartu ziren maileguak, euskal lexikoaren partaide bihurtu zirenez, euskal lexiko osoak ordutik aurrera pairatu zituen `euskal aldaketak` bai pairatu dituzte: eusk. “gerezia” dugu, zeren hitza hartu eta gero euskaraz “k” goxoa > “g” aldaketa gertatu baitzen hitz hasieran.

Maileguen artean estratuak bereizteko (hots, garai ezberdinetako maileguak identifikatzeko) balio duten irizpideetan interesgarrietako bat da aurreko bokalen (e, i) aurrean euskaraz lat. “c”-k zer eman duen. Latinezko artikulazio belarea gorde duten hitzak (“bake” < “pake”, “bike” < “pice”, “gerezi” < “ceresia”...) oso mailegu zaharrak dira, lat. “ce”, “ci” palataldu eta asimilatu baitziren. Erromantzetik hartu ditugun maileguek txistukaria dute, beraz, belarearen ordeztu: “zeru” (“**gero”) < lat. “coelu” /kelu/.

Halere, hitzek hasieran herskari ahostuna dute lat. ahoskabearen ordeztu (“bake”); bokal artea, lat. ahoskabeak gorde egin dira. Erromantzeetan hain juxtu kontrakoa gertatu da.

Uhlenbeck-ek (1909-1910) uste zuen hasierako ahoskabea ahostunduko zela bokal arteko “-k-”-rekiko disimilazioz. Baina, halako disimilazioak ezezagunak izateaz gain, ahostuntzea bokal arteko herskari ahoskaberik ez duten hitzetan ere jazo dela dakigu (“gerezi”, “gela”...).

Gavel-ek (1920) ez zuen onartu. Hasierako herskari guztiak ahostunduko ziren erregulariki lehen maileguak hartu eta gero. Salbuespenak erraz azal daitezke (mailegu berriak, euskararen barruko ahoskabetzeak, fonosinbolismoak...).

(b)-n kontuan izan behar da inguruko hizkuntzek ahostun / ahoskabe sistema dutela betidanik, eta, beraz, indar handia egingo zutela oposaketa mantentzearen alde. Gavelek (b) hobesten du.

Martinet-en iritziz, Gavel-en azalpena arrazoizkoa da: euskarak joera handia zuen herskariak hitz hasieran ahostun gauzatuko zen fonema batez bakarrik ordezkatuta egoteko, hitz bukaeran ahoskabeaz, eta hitz erdian (bokal artean) bi fonemaz, bata ahoskabe (batzuetan hasperendun) eta bestea ahostuna:

b-	-p(h)-	_____ (ez baitago -p bukaerarik)
	-b-	
d-	-t(h)-	-t
	-d-	
g-	-k(h)-	-k
	-g-	

MARTINETEN PROPOSAMENA

Hitz hasierako ahostuntzea inguruko erromantzeen eragin handiari egotzi behar zaio. Eragin horrek aldatu zuen euskararen kontsonante sistema.

Sistema hura ezaugarritzatzeko: abiapuntua ez legoke ahostun / ahoskabe oposaketan, bada, baizik eta oso bestelako batea. Daniera lagun, 'fortis' (bortitz, indartsu) / 'lenis' (ahul) oposaketa proposatzen du. Bi herskari sail; bortitzak /P, T, K/ eta ahulak /p, t, k/.

Herskari bortitzak hitz hasieran (# __) hasperendun ahoskatuko ziren [ph, th, kh]; bokal artean (V __ V) hasperenik gabeko ahoskabeak izango ziren [p, t, k]. Herskari ahulak, berriz, hitz hasieran ahoskabe goxo bide ziren [p^o, t^o, k^o] eta bokal artean espirante ahostun [β, δ, γ].

Latinetik hartutako maileguetan, hasierako herskariak, latinez ahostun zein ahoskabe izan, aukeran biak hots ahularen bitartez islatu ziren AE-z. Bokal artean, berriz, zeinek bere kide hurbila: ahoskabeek bortitza (ahoskabea) eta ahostunek ahula (ahostuna).

Hitz hasiera, beraz, AE-ren herskari bortitzen saila latinezko hitzik gabe geratu zen. Inguruko hizkuntzen eraginez, bortitzen saila desagertuko zen, horrelakorik zuten jatorrizko morfemetan hasperentasuna areagotu eta hortik > espirantea > "h-" > Ø emanik.

Gavel-ek azaldu bezala geroago sortuko zen hitz hasieran ere aurkitzen dugun herskari fonologikoki ahoskabeen saila, eta inoiz hauetarik zenbait fonetikoki hasperendun egin dira.

MITXELENAREN AZTERKETA

Sistemak irregulartasun bat zeukan: ahostun / ahoskabe sistema normaletan (erromantzeak kasu) ez bezala, hitz hasierako herskari ahoskabeak ahostun bihurtzen ziren mailegu zaharretan. Hori azaltzeko, Martinet-ek hipotesia: euskara ez zen izango ahostun / ahoskabe sistema bat, baizik 'lenis' / 'fortis' sistema, non bereizketa ez baitago ahostuntasunean, ahoskapenaren indarrean baizik. Martinet-en lana Mitxelenak berretsi zuen.

Mitxelenak (1951) hiru eratako oharrak egin zizkion, haren teoria sendotzearen:

(1) [f]-ren inguruan.

(2) Geminatu eta leherkari talde ahostun eta ahoskabeen emaitza berak euskaraz

eta ezberdinak erromantzeetan.

(3) Akitanierazko eta Erdi Aroko lekukotasunak.

Bat dator Martinet-ekin euskararen historiarekin lotutako gertakari asko nahasgarri eta oztopo bilakatzen direla berreraikitzaileentzat. Batetik, dialekto zatiketa oso handia da, arrazoi politiko-administratiboengatik. Bestetik, latin eta erromantzeetatiko maileguak ugari eta ñabarrak dira.

BERRERAIKETAREN OINARRIAK ETA LANABESAK

Martinet-en teoria euskal datuen ezagutza sakonarekin berretsi eta osatu zuen: akitanierazko eta iberierazko inskripzioak, Erdi Aroko onomastika (IX-XI. Mendeetatik aurrera) eta Erdi Aroko testuetako euskal hitz, esaldi, glosa, hiztegitxo... bai eta XV-XVI. mendetik aurrerako euskarazko testuak ere. Berreraiketa konparatua eta bereziki barneberreraiketa aplikatuaz, AE-ren fonologi sistemaren berreraiketa burutu zuen.

BERRERAIKITAKO SISTEMA

Mitxelena Martinet-en proposamena sistema osora hedatu zuen, /h/-az landa (1957):

Bortitzak:	---	t	k	tz	ts	N	L	R
Ahulak:	b	d	g	z	s	n	l	r + h

Hots gehiago ez agertzeak ez du esan nahi ez zenik, ezpada ditugun datuekin ezi direla berreraiki. Bokal artean AE “*l” eta “*r”-ak bat egin zuten Goi Erdi Arorako; beraz, berez ezin jakin dezakegu “buru”-ren lehenagoko forma “*buru” ote zen, ala “*bulu”. Hotsetatik batzuk lehen unetik albo batera utzi:

(1) Ezpainkari bortitzik ez: /p/ hotsak ez du ematen izaera fonologikoa zuenik, zeren eta, gutxi agertzeaz gainera, agertzekotan /b/-ren alofono gisa baino ez baita.

(2) Hots palatalak: euskara historikoan hots adierazgarriak dira edo automatikoki sortuak (sekundarioak). Sistema nagusitik kanpo eta horren menpeko gisa leudeke, arlo fonosinbolikoan ziurrenera.

(3) /m/ ere, maileguetarik eta fonosinbolismoetarik at, testuinguru sudurkarietan sortzen zen /b/-ren alofono gisa bakarrik baizik.

“m” hotsa sekundarioki sortu duten bi aldaketa ezagutzen ditugu:

(a) “b.....m” > “m.....h / Ø” (“*bini” > “mihi”, “*banats” > “mahats”...).

(b) “nb” > “m” (akit. “Sembe-” > “*semme”, “*umbe” > “Umme” > “ume”).

- Bokalak berariaz ez dira aipatzen, ez dira gehiegi aldatu akitanieratik. Oraingo bostak beren hartan utzi behar: hiru irekiera-gradu, eta luze-labur bereizkuntzarik ez.

/j/ eta /w/ irristariak berankorak. Lehenak, aditz zaharretako “e-” aurrizkian izan ohi du iturburu nagusia; bigarrenak, diptongo zenbaiten hondar zatia ez denean, maileguetan.

HERSKARIEN BERRERAIKETARAKO ALDEKO ARGUDIO GEHIAGO

“f”-aren lekukotasunak. Garai batean “b”-ren aldaera zen (“nafar” / “nabar”) eta orain, “p”-ren aldaera (“alfer” / “alper”, “ifini” / “ipini”). Garai zaharretan, ahostuntasuna ez zen “b” eta “p”-ren arteko bereizketa garrantzitsuena (“f” ahoskabea izanik “p” hautatuko zuten eskura zituzten hotsetan), baizik eta ahoskera ahula edo indartsua den, eta “f” frikari izanik ahula izan eta honexegatik “b” hautatu. Aitzineuskara benetako ahostun / ahoskabe hizkuntza izan balitz, [f] batarekin ala bestearekin litzateke baina ez biekin; beste zer bait zen oposaketa horren gainetik.

Geminatuak bilakabideak adierazten du orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela (geminatuak luze = indartsu) eta ez haien ahostuntasunari, zeren eta geminatu ahostunak, ahostun izan arren, `fortis`-aren bitartez adierazi baitzituzten:

lat. “BB” > eusk. “p”: “abbas” > “apaiz” vs. gazt. “abad”

“sabbatu” > “zapatu” vs. gazt. “sábado”.

Berdin talde erromaniko ahostunek > eusk. ahoskabe:

gazt. zah. “cobdiçia” > “gutizia” vs. “codicia”, lat. “ad valle(m)” > “apal”.

Lekukotasun zaharrenetako datuak ere alde datoz. Akitanierazko <TT> eta <CC> grafiak, agian indartsuen adierazpide ditugu (vs. <TH>, agian hasperendun).

Akitanierazko herskarien banaketak erakusten digu, bestalde, “p” bakana zela, ziurrenik “b” ahularen aldaera kokagune indartsuan (elkartuen bigarren osagaiaren hasieran: akit. “Seniponnis” vs. ohiko “-bon(n)”). Iberieraz ere: ib. “Estopeles” vs. “Beles”.

NEUTRALTZEAK

Ikusi dugu (Martinet 1955) ahostun / ahoskabe oposaketa kokagunearen arabera neutraltzeko joera izan duela euskarak, eta bokal artean baino ez dela gorde.

Honegatik “*du-da” formatik “dut” sortu zen bokala hitz bukaeran galdu zenean, eta ez “**dud”.

Joera bera dago beste kontsonante sailetan ere; txistukarietan:

		s						
s				TS				
			TS					
Ozenetan ere:								
	n		l			r		
n	N		l	L	∅		R	
	N		L			R		

“R” bukaeran neutraltzeko joera indartsua da, baina burutu gabekoa: kontrako indarrek (alboko hizkuntzen eragina...) batzuetan irabazi egiten dute.

(1) Mailegutan: “plazerik” ala “plazerrik”?

(2) Ondare zaharreko hitzetan: “nor-en”, “nor-i”... baina “ezer-en” ala “ezeRen”?

Mitxelenaren erronboak AE-koak balira bezala aipatu, baina ez. Martinet-ek (1955) zioen hitz hasierako indartsuen ahultzea latina eta euskara ukipen egoeran jarri zirenetik aurrera gertatu zela. Berreraikitako sisteman herskari ‘fortis’-ak eta ‘lenis’-ak, biak ager daitezke bokal arteko kokagunean ez ezik, hitz hasieran ere: sistema karratu bat proposatu zuten, beraz, AEZ-rako, gero erronbo bihurtuko dena AEB-rako.

Herskariak erronboa oso berandu garatu dute, azken kokagunean ditugun adibideak fonosinbolikoak dira edo oso berandu sekundarioki sortuak.

ONDORIOAK

AE-ren sistema eta ondoko bilakaerak ezagutzeak ondare zaharreko hitzei buruz aurreanak egiteko aukera ematen digu. Sistemaren barruan sartzen ez den edozer, ondoko hiruetako bat behar du izan: mailegua, hitz fonosinbolikoa (adierazgarria), eta (beranduagoko) aldaketa baten ondorioa (sekundarioa).

Hitz hasierako kokagunean ondorioak:

(1) Gaurko euskaran “p-”, “t-”, “k-” edo “r-”-z hasten diren hitzak edo mailegu berankorrek dira (“pisu”, “teila”...), edo hitz fonosinbolikoak (“tu”, “pa”...), edo sekundarioak: “biz-” > “piztu” (“b” > “p” ondoko herskari ahoskabearen asimilazioaz)...

(2) Hitz hasierako “m-” duten hitzak ere: fonosinbolikoak (“memelo”, “mamu”...), sekundarioak (bVnV: “*bini” > “mihi”...) edo maileguak.

(3) Ez zen kontsonante talderik AE-z. “Trikatu” edo “muga” hitzak inguruko erromantzeetan aurki daitezke; askoren ustez, euskaratik mailegatuak dira.

Bokal artean ere ondorioak: “alaba” < “*aLaba” (bestela “**araba” izango zen), “anaia” < “*aNaiia” (bestela “**ahaia” izango zen). Gertatu ote ziren inoizka “N” > “n” > “h”, eta “L” > “l” > “r”? Badirudi ezetz.

Mitxelenak beste lan gehiago egin zituen: silaba eta erro-egituraz zerbait esan zuten, eta baita morfologiaren ere.

ONDOKO IKERKETAK, EZTABAIDAK

Salbuespenak salbuespen, Mitxelenak proposatutakoak bere hartan dirau, denbora luzez ia ez da ukitu. Halere, alor bakar batean ikusi dugu Mitxelenarenari astindu bat emateko saiorik: sistemaren oinarrian dauden herskariaren sailean, hain zuzen.

Bide berri bi proposatu dira: Trask (1985) eta Hualde (1997). Mitxelenaren proposamenak baino azalpen botere txikiagoa lukete (hershkariak bakarrik), eta ez dute datu berririk azaltzen (etimologia berririk ez), ez galdera berririk erantzuten; ez genduke ezer handirik irabaziko.

TRASK-EN PROPOSAMENA (GEMINATUAK ETA SOILAK)

Trask-ek garrantzi handia ematen die neutralizazio batzuei, ‘lenis’ / ‘fortis’ sistema egiazko batean (hizkuntza zapotekak, esaterako) ezinezkoak, bere ustez:

ahula + ahula = bortitza; “beg(i)” + “gain” > “bekain”, “erreg(e)” + “bide” > “errepide”.

lat. “bb” > eusk. “p”; “sabbatu” > “zapatu”.

Sistema bakunago bat proposatzen du, kontsonante sail bakarrekoa:

p t k s ś n l r

Testuinguru batzuetan (bokal artean nagusiki) kontsonante geminatuak agertu (“pp”, “ss”, “nn”...).

Proposamen honek duen ahulgunerik handiena datu txarrak erabiltzean datza: antzinako sistema baten ezaugarriak askoz geroagoko berrikuntzetan aurkitu nahi izan ditu. “Bekain” eta “errepide” ezinezkoak dira AE-n, ez baitzegoen herskaririk morfema bukaeran (Erdi Aroan bai).

Halaber, “ez” < “eze”, eta galera ez dugu uste gugandik horren urruti gertatua denik: cf. “ze-bedi” < “(e)ze-bedi” vs. “eztator” < “*ez(e) dator”; euskara zaharrean, “eze” adizkia azentuduna den (aginterazkoak bai) ala ez (gainerakoak) eta honen arabera bilakatua, ezin horrelakorik izan AE-n.

Gainera, azalgabe uzten ditu hasieratik egin ditugun galderarik gaitzenak: nola azaldu hitz hasierako herskariak euskaraz bakarrik ahostuntzea, ez erromantzeetan? Bokal artekoak bere hartan egotea, ez erromantzeetan? Erromantzeetan geminatuek ahostuntasuna mantentzea, baina ez iraupena, eta euskaraz alderantziz gertatzea?

Trask-ek berak atzera egin eta 1997ko liburuan Mitxelenaren sistemara bihurtu zen.

HUALDE-REN PROPOSAMENA (AHOSTUN, AHOSKABE)

Hualde-k garrantzia kontsonante ondoko posizio askotan gertatzen diren neutraltzeei: “haritz” + “-di” > “harizti”, “ardan” + “-tegi” > “ardandegi”, “mendi-tik” + “dator” > “menditator”...

Bere ustez, datuen arabera ez dago herskari sail bietan AE-tik gaurko euskarara funtsezko aldaketarik proposatu beharrik.

Aldaketa bakarreko hipotesia: Kontsonante ondoko asimilazioen ondorioz, hitz hasierako kokagunean ahostun / ahoskabe oposaketa galtzeko zorian izan zen garai batean, eta gero, alboko hizkuntzen eraginez, oposaketa berriro indartu da.

Ez da etimologia berri bakar bat ere azaltzen eta datu asko Erdi Arokoak eta are beranduagoak dira.

AZENTUA **DENBORAZ LARRIBILITA HAUEZ NUKE SARTUKO**

Euskara modernoan, perpaus-azentua; ez da oso zaharra, herskarien bilakaera ezberdinak lotuta baitaude hitzeko kokagunearekin. Lau proposamen ditugu:

- (1) Martinet-ek (1950) azentu demarkatzailea (hitz arteko mugak bereizten dituen) hitz hasieran kokatua proposatu zuen, herskarien banaketa azaltzeko.
- (2) Mitxelenak (1957-1958), berriz, hitzaren bigarren silaban, hasperenaren agerpena azaltzeko (inoiz ez bigarren silabatik aurrera eta inoiz ez bi hasperen hitz berean). Hipotesirik onartuena da:

Euskarak, galesez bezala, hasperena azentuaren aurrean bakarrik ager daiteke; beraz, lehen silaban balego, ondoko hasperen guztiak galduak lirateke.

Martinet-en hipotesiak gastu gehiegi: azentu demarkatzaileak edo hitz hasieran edo bukaeran doaz. Mitxelenaren helburua eta Martinet-ena, denak biltzeko, aski da pentsatzea hitz fonologikoak bi silaba dituela, eta azentua bigarrean doala.

Igartuak (2001, 2002) proposatzen du Martinet-en eta Mitxelenaren azentuerak onartzea, baina kronologia ezberdinekin edo, zehatzago, kontrako ordenan: lehendabizi Mitxelenarena, gero Martinet-ena.

- (3) Hualde-ren proposamena (1993, 1995) ez da AE-raino iristen. Azentu zahar hori azken silaban jartzen du; ez du hasperenari buruz Mitxelenak ematen duen azalpena ezertan aldatzen eta, gainera, ezin pentsa genezake bere proposamena AE-koa zenik, ezta, beharbada, EBZ-koa.
- (4) Lakarraren proposamena (2005, 2006). Tipologia holistikotik abiatuta bigarren silabako erro monosilabikoetan kokatzen du bisilaboetako azentua, ikusiko dugunez lotua doa (besteak ez

bezala) aurrizki eta atzizkien distribuzio eta ugaritasunarekin. Oso berandu arte euskarak duen atzizki urritasuna oso gaizki azal liteke betidaniko azentu behehazkoarekin. Aldiz, goranzkoa balitz berandu arte, honek berarekin bailekarke, gainera, agortzen ari diren aurrizkiak (eta hitz hasierako kontsonante erorketa eta aldaketa ezagunak) zilegi egitea, kontrakoak ez bezala.

10- Aldaketa sintaktikoa (Campbell-en arabera) zenbait euskal adibide:

Aldaketa sintaktikoari dagokionez, gaur egun, oraindik ez dago ikertzaile guztiek onartzeko moduko hurbilketarik. Hemen ezin da berreraiketa fonetikorik egin, sintaxiak gramatika-ereduek bakarrik baitu zerikusia eta hau ezin da deskribatu fonologiaren bitartez. Sintaxi aldaketa gehiago da ereduak ordezkatzeko, nahiz eta berreraiketa ere egiten den (kasu honetan emaitza eztabaidagarriak irteten dira). Aurrerapenik handienak hizkuntza tipologian oinarrituz lortu dira. Aldaketa sintaktikorako hiru mekanismo nagusi bereizten ditu Campbellek (hauetz gain, gramatikalizazioa ere aipatu behar da):

1. Berranalisi: sintaxi ikuspegitik definitu zuen, egitura sintaktikoaren azpiegitura aldatzen du, baina ez du azaleko egitura aldatzen. Hau da, morfologi markak eta hitz-ordena aldatu gabe, berranalisi egiteko ezinbestekoa delako egitura bat erabatera baino gehiagotara analizatzeko aukera egotea. Adb: Ni nekatzen naiz (sub./ A. nagusi.osagarri./A nagus) > ni nekatzen naiz (sub/ A. nagus./ A. lagun) berranaliaren ondorioz, iherarkia eta kategoria aldaketa eman da.

2. Hedadura: azaleko perpausean gertatzen den aldaketa da, baina ez du bere baitan hartzen azpiegituraren berehalako aldaketa. Askotan, lehen urratsa berranalisi da, eta gero berranalisi haren hedadura gertatzen da analisi berriak sortzen dituen lehen ezinezkoak zirenak. Adb. Paris/en > Paris/e leku-kasuetan -e beti erabiltzen da (atze, aurre,...) eta izenekin berranalisi egin ondoren -e- ren funtzioa hedaduraren bitartez aldatu da.

3. Mailegu sintaktikoa: hizkuntza batean beste hizkuntza batetik datozen egiturak erabiltzean datza. Garrantzitsua da onartzea mailegatze sintaktikoaren beraren papera aldaketa sintaktikoan. Adb. Gaztelarazko segun eta contra euskarak mailegu hartu eta gainontzeko postposizioak bezala erabiltzen ditu, baina jatorrizko hizkuntzan ez du funtzio hori. Egokitzapen bat izaten du beti maileguak.

4. Gramatikalizazioa: Mailletek sortutako kontzeptua da, hitza gramatika- marka bihurtzen deneko prozesuari izena emateko kurylowicz-en definizio ezaguna: "Gramatikalizazioa honetan datza, morfema baten hedadura handitzean, estatus lexiko batetik gramatikal batera edo gramatikal batetik gramatikalago batera igarota". Prozesu tipikoa hau da: hitz lexikoa > gram. hitza > klitikoa > erantsitako hitza > portmanteau hizkia (gainerakoekin nahasitakoa). Prozesu honetan, sarritan hitzaren esanahia edo forma fonetiko ahuldu egiten dira. Adb. "egin" aditza, mendebaldean aditz laguntzailea dena. Bestalde, gramatikalizazio fenomeno nahiko arrunta da, desgramatikalizazioa ez da hain arrunta.

11- Askok uste dute Adj. euskaraz okerreko lekuan bezala dagoela. Zertan oinarritzen dira? Ba ote arazoari beste era batera begiratzeko modurik?

Hizkuntza bizi guztiek jasaten dituzte aldaketak denboran zehar. Euskara ez dasalbuespena eta bere diakronian izan ditu hainbat aldaketa eta zenbaitzuk handiak gainera. Aldatu daitezkeen ezaugarrien artean tipologikoak daude. Ezaugarri tipologiak ez dute bakoitza bere aldetik doazen ezaugarrien multzo bat osatzen. Ostera, euren artean lotuta dauden ezaugarrien sare bat osatzen dute eta honek sinkronian garrantzia badu, hare gehiago diakronian.

Hizkuntzak aldaketa tipologiko sakona jasan duela adierazten duen datu garrantzitsuetako bat, adjektiboak izenaren eskumatara agertzea eta kategoria bezala adjektibo ez izatea da. Tipologia-irregulartasuna: 'izena + adjektibo' ordena, berez SOV hizkuntza bati ez

dagokiokeena. Greenberg-ek (1963) ez zion garrantzirik eman; ingeles modernoa SVO delarik 'I + Adj' tokatzen zitzaiola baina egiatan 'Adj + I' duela.

Euskara adjektibodun hizkuntza da gaur egun, baina uste da antzina euskara adjektiborik gabeko hizkuntza zela. Adjektiboaren 'irregulartasuna' lot dezakegu euskaraz daukan izaera badaezpadakoarekin. Baldin eta antzina adjektibo kategoria berez ez bazegoen, eta berandu sortua bada Dixon-ek (1977) adjektibo gabeko edo adjektibo-sail mugatuko hizkuntzek adjektiboak sartzeko erabilitako bideak erabili ditu euskarak baita (1982):

- (1) Eratorriak: "bel-tz"...
- (2) Partizipioak: "gorr-i", "zur-i"...
- (3) Erlatibozkoak: "ur-din"...
- (4) Maileguak: "berde", "marroi"...

Koloreetan ez da CVC errorik aurkitzen, beraz koloreak beranduago sartu ziren adjektiboak bezala. Normala baino ez da adjektiboa izenaren eskuinetara agertzea, hortxe agertzen baitira adjektibo berri horren sorburuetatik hiru (eratorriak, partizipioak eta maileguak). VSO hizkuntzetan 'I + Adj' hurrenkera aukera bakarra da. Adjektiboa 'tokatzen zitzaien' lekuan sortu / sartu da.

- Erlatiboa: SOV bati dagokion bezala, erlatibozko egitura izenaren ezkerretara doa. Datu guztiak ez datoz bat horrekin:

- (1) 'Fase sparita'-n 'I + Erl' ordena: "gizon Paristik etorri dena".
- (2) "ur-din", "bizar-dun"... tankerako eratorriak antzinako erlatibozkoak lirateke.
- (3) Toponimian "Ur dirakiena", "Hartz eraena", "Iturriadana"... aurkitzen da Amezkoan, Araba ekialdean edo Gorbeialdean, eta ez besterik.

- Gauza bera leku-genitiboaren ordenari buruz: "andra Mari Baldako", "andra Milia Lasturko"... Hau erlaziona daiteke euskararen historian antzeman ditzakegun fenomeno zenbaitekin: hasteko, "-i" bukaera duten euskal adjektiboen ugaritasunarekin: "gorri", "zuri", "larri", "hori", "bizi"... Mendebaldeko "*hotzi" (cf. "hotzitu"), "*baltzi" ("baltzitu"). Etxeparek "*hari" ("haritu" 'hartu').

- "-i" partizipio marka zaharra denez, suposa dezakegu adjektiborik ez zen garai hartan adjektibo gisa berkategoriatur direla lehen aditz estatiboak zirenetako asko.

12- Aditz sintetikoa eta perifrasiak: egitura, historia, berreraiketa. (2 DAUDE BAKARRA SORTU BEHAR DA)

1. Aditz oina + *edin / *ezan: Perifrasi zaharrenentzat jotzen dira. Gainera, perifrasi hauek badituzte gaur egun desagertuak diren balioak. Adibidez, “etor nendin”, XVI. mendean

aristo zahar bat izango balitz bezala itzuliko genuen, baina gaur egun, “etorri nintzen” esanahia hartu du.

2. Partizipioa + izan / *edun:Honen sorrerak besteari lekua kendu dio. Aditzei dagokienez, adierazten duten aspektu, moduaren... arabera bi taldetan banatzen dira: a) Aditz atelikoak: Bukatzen ez den ekintza bat adierazten du, hala nola “ikusi”. b) Aditz telikoak: Adierazten duten ekintza muga bat da, adibidez “etorri”. “Aprobaturiko dut” bezalako adizki perifrastikoak maileguak dira eta latinezko perifrasi jakin batetik hartutako egitura dute. Emaizta bat adierazten duen perifrasi bada, jatorrizko balioa “erresultatiboa” da. Gaur egun euskarazko erresultatibo ohikoak “etorria da” bezalakoak dira.

3. Partizipio + joan / *eroan:Euskal Herri osoan aurkitzen dira, eta horregatik (argudio dialektala) perifrasi zahartzat jo. Joan / eraman aspektua adierazteko erabiltzen dira, ohikoa den bezala beste hizkuntzetan.

4. Aditz izena + izan / *edun:“egiten naiz”, “egiten dut”-etik dator. Aditz izena + inesioa + aditz kopulatiboa. Inesibozkoek aditz iragangaitza eskatzen dute munduko hizkuntzetan, eta horregatik pentsatzen da horrela gertatu dela euskaraz.

5. Partizipioa + -ko / -en:Partizipio genitibodunak dira, gaztelaniazko “he de venir” bezalakoak.

6. Ari izan:“egiten ari naiz” / “egiten ari dut” bezalakoak sartzen ari dira gaur egun. Aditz nagusiak erabakitzen du zein hartu.

16- Mitxelenaren aitzin euskararen berreraiketa gorago jotzerik ba ote?

BAI.

Mitxelenak batez ere fonologia berreraiki.

Indo Europarrean, besteak beste, erro erduen azterketak ezagutza sakonagoa ekarri du. Zergatik ez probatu euskararekin?

Erro moten ehunekoak-eta aztertuta, ateratzen da erro kanonikoa CVC zela. □

□ Aurrizkiak agertzen dira □ tipologia oso bestelakoa hizkuntzak □ Mitxelenak jo baino gorago gaude jada

Eskura ditugun lekukotasunen bidez, nagusiki testuen bidez, ezagutzen den hizkuntzaren historian atzera egin daiteke, lehenagoko formak (hotsak, morfoak, hitzak...) eta lehenagoko sistemak (sistema fonologikoa, deklinabidea...) nolakoak ziren asmatzen saiatuaz. Horri deitzen zaio “berreraiketa”. Berreraiketa ezin da edonola egin, ahalik eta oinarririk sendoenen gainean baizik. Hortaz, gertakari seguruei eman behar zaie lehentasuna, eta Mitxelenak dioenez, ezer baino lehen histori garaiak eskaintzen dizkigun datuak aurkitu eta aztertu behar dira, haien gainean oinarrituta historiaurrean zer zitekeen asmatzen hasi baino lehenago.

Berreraiketa da hizkuntzalaritza konparatzailearen metodo klasikoa. Familia berekoak diren, hau da, elkarrekin genetikoki lotuta dauden hizkuntzetako forma ezagunak edo dialekto ezberdinetako forma ezagunak erkatzen dira, adibidez, forma horiek guztiak azaltzeko gai den antzinako forma berreraikitzeko. Barneberreraiketean, berriz, hizkuntza bakar batek emandako datuetan oinarrituta egiten da berreraiketa, hizkuntza horren berorren lehenagoko egoera batera iristeko. Barneberreraiketa edozein hizkuntzarekin erabil daitekeen

metodoa da, baita familia ezagunekoak direnekin ere (konparaketak argitzen ez dituen kontuetarako, adibidez), baina bereziki emankorra da gurea bezalako hizkuntza bakartuentzat.

Barneberreraiketa hizkuntzaren aldakortasunari buruzko hatsarre garrantzizko batean oinarritzen da: hizkuntz egoera bakoitzak bere baitan gordetzen du lehenagoko hizkuntzaren arrastorik. Hatsarre honen ondorioak sinkroniako txandakatze gisa islatzen dira. Maizenik txandakatzeok morfofonemikoak izaten dira: Ene irregularra da bere paradigmaren barruan, vs. nire erregularra (zure, hire, gure paradigmarekiko analogiaz sortua).

Barneberreraiketak ez digu biderik ematen lehenagoko hizkuntza osoki berreraikitzeke, ez eta hurrik eman ere, baina batzuetan ez dago beste modurik. Ene zaharragoa dela badakigu, baina ez zer adierazten duen, ez osoki behintzat: *en-e . E e-torri, i-ibili eta joan aditzen hasierako bokal txandakatzeak *e- aurrizkia berreraikitzeke bidea eman zion Mitxelenari, txandakatzearen baldintza fonetikoak zehazteko gauza izan baitzen.

Maizenik lehenagoko hizkuntza osoki berreraikitzeke biderik ez izan arren, ez dugu pentsatu behar antzinako kontuak oraingoak baino bakunagoak zirenik. Aitzitik, oso kontuan hartzekoa da historiaren aberastasuna, berreraikitako eskemek nekez isla dezaketena. Honek hamaika arazo sortzen ditu. Berreraiketa guztiek ahalik eta azkarrenik nahi dute jo, zuzen-zuzen, galdutako garaira. Alabaina, datu historikoen usu erakusten digute benetan gertatu dena konplexuagoa izan dela. Sinplifikazioak saihestea beharrezkoa da, ze adibidez, latinezko -ebam , -ebas , -ebat-etik gaztelaniako indikatiboko imperfektuaren garapena -ía , -ías , -ía izatetik (1) $\text{b} > \emptyset / \text{V}_\text{V}$; (2) $\text{e} > \text{i} / _\text{a}$ arauak ateratzen baditugu, ez da nahitaz egiatzkoa.

Izan ere, gaztelania zaharreko tesutetan -iés , -ié , -iémos ... formak nagusi dira, eta ezin dira eman diren arauen arabera azaldu. Honelako sinplifikazioak ugariagoak dira ezezagunagoko edo ikertu gabeko hizkuntzetan. Mitxelenak aipatzen du batuaren hasikinetan, gure artean bazebilela eztabaida bat, nire eta nere-ren artean zein zen “zuzenagoa” ez ezik, zein zen “zaharragoa”. Nire-ren aldekoek argi zeukaten kontua, nire formak ni pertsona izenordainaren euskarria baitauka. Baina euskalki guztietan badirudi ene forma bat izan zela, neure forma indartuarekin oposatzen zena. Nire neure-ren aldaeretakoa bat baino ez da. Gaur egun nire erabiltzen den lekuetan, beraz, forma zahar bat gorde da, lehengo balio indartua galdu badu ere. Nire, ordea, eraketa analogiko moderno bat baino ez da, ni-ren gainean eraikia, i : ire, gu : gure ereduaren gainean eraikia.

Bestalde, hizkuntzalari historikoen konbentzio bat ezarri dute. Lekukotutako forma eta berreraikia bereizi behar dira. Hala, berreraikiek izartxoak eramango dute noizbait norbaitek agerraldi bat aurkitu arte. Adib.: *ardano , *bini baina ardao / ardan(degi) eta mi(h)i(n) . Lehengo formak bigarren formen etorkitzan izan arren, izartxoarekin idazten dira, haietatik eta haiek azaltzeko atereak direlako.

Berreraikitzen diren formak eta sistemak noizbait existitu direlako konfidantzarekin berreraikitzen dira. Eta, nahiz gehienetan haien egiatzotasuna behin betikoz frogatzeko modurik izango ez dugun, bi ustekabekok frogatu dute metodoak aski seguruak direla.

Alde batetik, hititearen seziframenduak Saussurek 1878an egin zuen indoeuropearazko laringalen berreraiketa berretsi zuen. Bestetik, lineal B-ren desziframendua, 1973an Vendreysek egin, greziera arkaiko baten isla da, eta hizkuntza honen historiaurreko berreraikitako gehiena berretsi zuen. Hori horrela ikusita, bada arrazoirik berreraiketaren konfidantza izateko.

Euskara aldatuz joan da (eta doa) eta aldaketa horien historia luza daiteke; orobat, aldaketa ezagun horietan oinarrituz hipotesiak egin daitezke historiaurreko euskaraz. Gainera, ez da egia osoa euskara zeharo bakartuta dagoela. Etorriaren aldetik bai, baina gainerako

hizkuntzekin lotzen da maileguen bitartez, esaterako. Horretarako buruan atxiki behar da konparazioa kognatuen artean egiten dela, hots, jatorri berekohizkuntz aldaeren artean, ez nahitaez hizkuntza ahaidetuen artean. Hala, Mitxelenak Fonética

Histórica Vasca-n erakusten duena azal daiteke. Izan ere, nagusiki latinezko maileguetan oinarrituta, antzinako euskararen sistema fonologiko berreraiki zuen, eta handik gaurko euskarara bitartean gertatu diren hainbat aldaketaren kontu zehatza ere eman. Beraz, genetikoki lotuta dauden hizkuntzen arteko konparaketa galarazita badauka ere, barneberreraiketaq egin daiteke, hots, berak eskaintzen dituen datuetan (maileguetan zein bestelakoetan) oinarritutako berreraikera: ene vs. nire auzian erabili dugun metodoa, alegia.

Bestalde, Hizkuntzen historiaurreaz jardutean bai “hizkuntza batua”rekin eta baita “aitzinhizkuntza”rekin ere egiten dugu topo. Hizkuntza batua izena ematen zaio noizbait banatzen hasi zen hizkuntza bati, familia berekoak diren hizkuntzen amahizkuntza edo jatorria denari, hain zuzen. Alabaina, batez ere delako aitzinhizkuntza baten dialekto zatiketa baino lehentxeagoko formari deitzen diogu izen honekin, berreraiki behar den hizkuntza egoerari, berankorrenari.

Aitzinhizkuntza, berriz, berreraikitako edozein hizkuntzari deitzen zaio. Hizkuntza batu zahar batekin kontrajartzen denean, gainera, batez ere berreraiki ahal den hizkuntza egoerarik zaharrenari egiten zaio kasu. Maiz, berreraikitako hizkuntzei “aitzin-x” izena egokitzen zaie: aitzinzelta, aitzingermanikoa..., baita aintzineuskara ere.

Berreraikitako aitzinhizkuntza ez da egiazko hizkuntza bat. Ez dira hizkuntza naturalak, horiekin konparatuta muga jakinak eta batzuetan oso larriak izaten baitituzte: gehienetan ezinezkoa da, esaterako, aldaera lektalak berreraikitzea edota aitzinhizkuntzok datatzea, eta oso maiz hizkuntza atal guztiak berreraikitzea bera ere ezinezkoa da, atal batzuek baitute ondoko hizkuntzetan arrastorik ere utzi. Ezin garai jakin bateko hizkuntza osoa berreraiki: alderdi ezberdinak berreraiki daitezkeenean ere, berreraikitako formak ez dira guztiak garai berekoak izaten, eta batzuetan alde handiak daude kronologian batzuen eta besteen artean.

Mitxelenaren aitzineuskararen, esateko moduan, fonologi sistema bakarrik berreraikitzen da. Lakarrarenean, berriz, erro kanonikoa eta gramatikarekin lotutako zenbait alderdi. Alabaina, baliteke bi berreraiketa horien artean milaka urteko aldea egotea kronologian. Hala bada, ez da egiazko bat berreraikitzen, sistema ba (edo batzuk) baizik, laborategiko hizkuntza hein handi batean. Berreraiketarako oso laguntza handia da (eta murriztapen garrantzizkoa) sisteman pentsatzea, sistemak mugatzen eta murrizten baitu berreraiki daitekeena, batetik, eta bestetik, sistemak erakusten baitu zein den eredia.

Beraz, Mitxelenaren aitzin euskararen berreraiketa baino gorago nekez joan daiteke, metodologia aldetik, ez baita inoiz aitzin hizkuntza naturalik berreraikitzerik izango, baina bai berreraiki daitezke fonologiatik haratago erro kanonikoa eta gramatikarekin lotutako zenbait alderdi ere, Lakarraren moduan.

17- Ondorengo hitzen iruzkin labur bana egin: jatorria (baldin badakizu), garapena, irizpideak, bera aztertzerako bestelakoan: adar-arrano-herio-ifini-joan-kalte-labur-lehen-negar-pertz.

1. Sarrera Hitzon iruzkin laburra egiteko kontuan izan dudan irizpide garrantzitsuenetako bat izan da aitzin-euskarako erroaren forma kanonikoa, CVC, alegia. AEZ-erako CVC erro kanonikoa proposatzeak ez soilik maileguetan edo eratorrietan aurkitzen dugun

**T₁V₁T₂V₂ baizik eta gainerako bisilabo eta polisilabo guztiak bilakatzen ditu ezinezko. Hona hemen zenbait arrazoi AEZko erro-eredua CVC zela esateko:

1) CV erako zenbait morfema (lo, ke...) CVC zaharrago baten aldaera ez diren neurrian, onomatopeia edo fonosinbolismoekin lotuta daude.

2) CVCC erroetan (hortz, bortz, dagoeneko ezagunetan, esaterako) -CC horiek hitzaren izaera ez bakuna baizik atzizkiduna erakusten dute: *hor-tz (cf. can-ino), *bor-tz (cf. borobil, pen-que) etab. Horrela zatika ezin direnean gogoan izan behar dugu inoiz -CC amaiera maileguen ezaugarria ere izan litekeela (ik. pertz).

3) CVC baino eredu txikiagoak (CV-, demagun) ez dira lexemetako erro-eredu onargarriak eta, horrenbestez, *la-gun, *la-bur, *sa-bel, *sa-kon, *sa-mur, *gi-zen edo *gi-bel ez dira konposatu arruntak, "aurrizki + erro" konbinaketak baizik. Beste aukera bat litzateke CV lehenagoko CVC higatu bat dela suposatzea, baina -C > -∅ aldaketa ez da konposaketa eta eratorpenean nahiz bestetan Erdi Aroa baino lehen lekukotzen. Erroaren forma kanonikoaz gain, fonologia ere oso kontuan izan dut.

2. Hitzen iruzkinak 1) adar*da-dar > adar. Erreduplikazioaren bidez sortua da, beste hauek bezala: zezen < *ze-zen, odol < *do-dol, azal < *za-zal, (k)okots < *kots, gogor < *gor... Erreduplikazioak aitzin-euskara zaharrean oso emankorrak ziren hitz-eraketarako, baina duela 1500 urte agortu ziren gutxienez. Erreduplikazioen eta aurrizkien ordeztasunak, atzizkiak eta konposizioa agertu ziren.

2) arrano*arran-no > arrano. Ondare zaharreko hitza da. Sudurkarien sisteman bortitz/ahul oposaketa zegoen aitzin-euskararen. Hitz batzuetan *-N- > -n- gertatu da: adb. anaia, arrano, ene... Badirudi, halaber, -L- eta -N- bortitz zenbait kontsonante talde zaharragoren batetik datozela: bele < *bel-le, baino < *ba-din-no... Ez bide dira kontsonante bera arrano-ko "n" eta arrain-koa (arrain < arran-i).

3) herio. Aditz zaharra da, aski eraldaturik iritsi zaiguna: *e-lin-o > *erino > herio. Hasierako h- h₃ > h₁ fenomenoaren fruitu da: hirugarren silabaren bokalarteko -n- > -h- egin zen eta, ondoren, bere eskuinetara hasperenik onartzen ez zuen azentua ezkerretara mugitu zen. Gogoan izan *e-don-iedota *o-gen-i. Bestalde, aipagarria da *-l- > -r- erregela /l-/z hasitako aditzetan. Hauxe da aditz horien garapena: *dVC > *IVC ⊆ *e-IVC > erVC. Beraz, herio-ren kasuan, *din > *lin > *e-lin-o > *erino > herio.

4) ifiniHizkuntzaren diakroniaren ikuspegitik nabarmena da /f/ bigarren mailako hotsa dela, ez baita maileguetan agertzen. Latineko hitz hasierako f-k emaitza ezberdinak izan ditu euskaraz: b-, m-, f-, p(h), h-, ∅-. Gaur egun maiztasun normaleko hotsa dugu, nahiz eta hitz hasieran gainerako inguruneetan baino gehiago agertzen den. "Ifini"-k hainbat aldaera ditu: ibeni (imini) eta ipiñi. Ibeni da alomorfo zaharrena eta honako bilakaera hau izan du: -b- > -f- (G eta inguruetan -p-) / V_V.

5) Joan. Aditz zahar gisa hartu ohi da, zenbait irregulartasun dituen arren: esanguratsuen CVC erro argirik ez izatea. Nolanahi ere, aditz-erroetako irregulartasun gehienak azal daitezke pentsatuz noizbait aditz orok zuela *e-(CV)-CVC egitura, hots, *e- aurrizkiak gain, beste bat ere izan zezaketela erro monosilaboaren aurretik. Joan-en kasuan, hipotesia da aurrizkiaren ondotik -C- bat erori egin dela eta [o – a] tartean morfema-muga bat zegoela: *e-Co-Can. Hauxe da aditz honen garapena: *e-danon > *janon > *jahon > jo(h)an. Hitz hasierako /j/ erraza da azaltzen: *e- > j- /_V.

6) kalte. Aitzin-euskararen herskarien sisteman bi aldi bereizten dira: hasiera batean bortitz/ahul oposaketa zegoen eta ondoren ahoskabe/ahostun oposaketa. Oposaketa horren ondorioz,

herskariak zenbait murrizketa zituzten: hitz hasieran herskari ahostunak baino ezin zitezkeen agertu, hitz barnean ahostunak nahiz ahoskabeak eta amaieran ez bata ez bestea. Hala, maileguetan lat. K- > eusk. Gegiten zen: adb. bake, denbora, dorre, gaztaina... Kalte latinetikoa mailegua dugu. Ahoskabez hasten da, baina badu ahostunez hasten den aldaera zaharragoa eta ez hain hedatua. (galte). Antzerako beste bikote bat baradizu/paradizu da.

7) labur/l/ ondo ordezkaturik dago hala maileguetan nola ondare zaharreko hitzetan. Askozaz gehiago dira albokariz hasitako hitzak sudurkariz hasitakoak baino: lahar, labur, labin, lakar, lapar, laster, laztan, legatz, lehen, leher, legar, lehor, likits, lapar, listor, litxar, lizar, lizun, lokots. Guztiak dira edo CVCCVC edo, aztergai dugun hitza bezala, CVCVC. Labur ondare zaharreko hitza da. Gogoan izanik aitzin-euskararen hitz-eraketa batez ere aurrizkien bidez egiten zela, ondorioztatu behar dugu l-z hasitako hitz hauek, labur barne, ez direla erro soilak, aurrizki + CVC egiturak baizik.

8) lehen *de-den > lehen. Erreduplikazioaren bidez sortua da, *den (finish) erroetik. l-z hasitako erreduplikazioetan jatorrizko egitura ez da *lVlVlC, bai, aldiz, *(d)VlVlC edo *(n)VlVlC. Beraz, fenomeno hau bizirik zenean, aitzin-euskara zaharrean, erro monosilabotuan l- falta zela dirudi.

9) negarnegar < lat. lacrima. *la crima bezala berranalizaturik, bilakabide hau izan du: *crima > *kirma > *girma > *girna > *nirga metatesiz > *nerga dardarkari aurreko irekitzeaz > negar. Hitz honen mailegutasuna sumatzeko bidea ez digu erroaren formak eman, hasierako kontsonantearen bakantasanak baizik. Mitxelenak dioskunez n- hitz zaharretan ez da oso ohikoa.

10) pertz. pertz < **per-tz. Oraindik ez dakigu zein den jatorrizko forma, baina badakigu mailegua dela, ez dagoelako **per errorik. Badakigu, ordea, zein ereduren arabera mozturrotu den: CVCC erroa da (hartz < *har-tz, hortz < *hor-tz), CVC erroei -tz bezalako atzizki kontsonantikoak erantsi zitzaizkien garaikoa.

18- Euskal diptongo eta bokalak: bere antzinatasunaren eta iraunkortasunaren alde eta kontrako argudioak.

1.

Bokalei dagokienez Mitxelenaren berreraiketan gaurko bost bokaleko sistematik atzerago ezin da egin. AE-tik aurrera euskal bokalak oso iraunkorrak izan dira eta sumatzen diren aldaketa guztiak alboko hotsek eragindakoak izan dira.

Lakarraren berreraiketan, aldiz, AE-ko bokalak bestela aztertzeko bideak agertu dira, bokal harmonia jasandako hizkuntzen bost bokal baino gehiago izan ohi dituztelako. Euskal bokalen bi ezaugarri nabarmen daude, itxuraz, kontrajarriak alde batetik, alboko hotsen bidez erraz aldatzen dira, baina beste hogeiki mendeetan zehar oso iraunkorrak izan dira. Mailegu zaharrak egokitzapenak erakusten digu, gaur egun bezala bost bokaleko sistema bakuna genuela. Izan ere, latinaren hamar bokalak bostera pasatu ziren, luze-labur bereizketa kontuan hartu gabe.

Diptongoei dagokienez, Mitxelenak bost diptongo eman zituen AE-raino: au, eu, ai, ei, oi. Ui forma hitzen batean agertzen da baina oso banada da, sekundarioa. Nolabaiteko zahartasuna duten diptongoez esan daiteke batzuk iraunkorrak izan direla, au eta oi esaterako. Bi hauek mailegu zaharretan eta ondare zaharreko hainbat hitzetan gordeak daude. Hala ere, diptongoak nahiko aldakorak dira euskaraz eta diptongoaren arabera edo testuinguruaren arabera ondorio

desberdinak izan dituzte. Diptongoak aldatzea dakar diptongo ezberdineko aldaeren ugaritasunak eta honek diptongoen antzeko gorabehera ugariren berri ematen digu.

Diptongoek duten joera nagusia monoptongazioa da. Hau da, lehenengo silaba erraz galtzen da. Baina honez gain, disimilatzeko joera ere badute: hurrengo silabako bokalaren eraginez disimilatzean, diptongoaren bigarren osagaia galdu edo aldatzen da. Beste gertaera bat diptongoaren osagaiaren galera da. -i- z amaitzen diren diptongoetan gertatzen da hau. Beste kasu batzuetan, ondoko kontsonantea palatalizatu ondoren monoptongatu egiten da diptongo izandakoa.

Horrez gain, diptongoei dagokienean, Mitxelenak bi joera orokor nabarmendu zituen AE-rako proposatu zuen silaba egituratik abiatuz:

1. Diptongoaren 2. osagaia ezabatzeko joera orokorra, batez ere lehenengo silaban: AWR, AWS, (AWT) AR, AS, (AT).

2. Hitz barruan eta bukaeran diptongoaren ordezkari bakarra bat agertzeko joera: o (u) eta agian i-ren e diptongoa aurrekoa denean. Diptongoen maiztasuna goraka joan da AE-tik aurrera. Hala ere, gaur egun euskaraz nahiko gutxi dira, gehien azken silaban aurkitzen ditugu. Fonosinbolismoetan, hitz adierazgarrietan eta fonosinbolismoz sortutako aldaeretan diptongoak ugariak dira.

Aipatutako ezaugarrien ondoren eta AEZ-eko erroa CVC zirelako hipotesiak kontuan hartuta, ezin dira hitz diptongodunak zahartzat eman, eta ondorioz, hitz mailegatuak edo konposatuak direlako oinarrizko hipotesia egin behar izan da.

19- Askok uste dute Adj. euskaraz okerreko lekuan bezala dagoela. Zertan oinarritzen dira? Ba ote arazoari beste era batera begiratzeko modurik?

Hizkuntza bizi guztiek jasaten dituzte aldaketak denboran zehar. Euskara ez dasalbuespena eta bere diakronian izan ditu hainbat aldaketa eta zenbaitzuk handiak gainera. Aldatu daitezkeen ezaugarrien artean tipologikoak daude. Ezaugarri tipologikak ez dute bakoitza bere aldetik doazen ezaugarrien multzo bat osatzen. Ostera, euren artean lotuta dauden ezaugarrien sare bat osatzen dute eta honek sinkronian garrantzia badu, hare gehiago diakronian.

Hizkuntzak aldaketa tipologiko sakona jasan duela adierazten duen datu garrantzitsuetako bat, adjektiboak izenaren eskumatara agertzea eta kategoria bezala adjektibo ez izatea da. Tipologia-irregulartasuna: `izena + adjektiboa` ordena, berez SOV hizkuntza bati ez dagokiokeena. Greenberg-ek (1963) ez zion garrantzirik eman; ingeles modernoa SVO delarik `I + Adj` tokatzen zitzaiola baina egiatan `Adj + I` duela.

Euskara adjektibodun hizkuntza da gaur egun, baina uste da antzina euskara adjektiborik gabeko hizkuntza zela. Adjektiboaren `irregulartasuna` lot dezakegu euskaraz daukan izaera badaezpadakoarekin. Baldin eta antzina adjektibo kategoria berez ez bazegoen, eta berandu sortua bada Dixon-ek (1977) adjektibo gabeko edo adjektibo-sail mugatuko hizkuntzek adjektiboak sartzeko erabilitako bideak erabili ditu euskarak baita (1982):

(1) Eratorriak: “bel-tz”...

(2) Partizipioak: “gorr-i”, “zur-i”...

(3) Erlatiboak: “ur-din”...

(4) Maileguak: “berde”, “marroi”...

Koloreetan ez da CVC errorik aurkitzen, beraz koloreak beranduago sartu ziren adjektiboak bezala. Normala baino ez da adjektiboa izenaren eskuinetara agertzea, hortxe

agertzen baitira adjektibo berri horren sorburuetatik hiru (eratorriak, partizipioak eta maileguak). VSO hizkuntzetan 'I + Adj' hurrenkera aukera bakarra da. Adjektiboa 'tokatzen zitzaion' lekuan sortu / sartu da.

- Erlatiboa: SOV bati dagokion bezala, erlatibozko egitura izenaren ezkerretara doa. Datu guztiak ez datoz bat horrekin:

(1) 'Fase sparita'-n 'I + Erl' ordena: "gizon Paristik etorri dena".

(2) "ur-din", "bizar-dun"... tankerako eratorriak antzinako erlatibozkoak lirateke.

(3) Toponimian "Ur dirakiena", "Hartz eraena", "Iturriadana"... aurkitzen da

Amezkoan, Araba ekialdean edo Gorbeialdean, eta ez besterik.

- Gauza bera leku-genitiboaren ordenari buruz: "andra Mari Baldako", "andra Milia Lasturko"...Hau erlaziona daiteke euskararen historian antzeman ditzakegun fenomeno zenbaitekin: hasteko, "-i" bukaera duten euskal adjektiboen ugaritasunarekin: "gorri", "zuri", "larri", "hori", "bizi"... Mendebaldeko "*hotzi" (cf. "hotzitu"), "*baltzi" ("baltzitu"). Etxeparek "*hari" ("haritu" 'hartu').

- "-i" partizipio marka zaharra denez, suposa dezakegu adjektiborik ez zen garai hartan adjektibo gisa berkategorizatu direla lehen aditz estatiboak zirenetako asko.

20- *da hizkia. Balioak eta bilakabidea. Morfologiaren historia.

Gramatikalizazioa zer den □ CVC > CV > C/V

DAR>DA>A

DA-tor (serial verb; balio burutugabea)

kopula eTA (Trasken legea □ ahostuna zaharragoa DA)

Adlatiboa □ A (Gasteiz-a...); /// (r)aino (<DAR-DIN-NON

Gai hau mahaigaineratzen dugunean aldaketa tipologikoaz ari gara. Gaur egungo hizkuntzen egoera linguistikoan irregular edo harmonia faltak aldaketa tipologiko batean pentsatzera garamatzate. Esate baterako, euskara SOV izatea ez dator bat I-Adj izatearekin. Horregatik aditzaren eta honen posizioaren inguruan zenbait azterketa egin dira. Transkek (1977) SVO > SOV aldaketa proposatu zuen I-Adj hurrenkera aldatze aldera. Baina SVO hizkuntzak ezin daitezke ergatiboak izan. Beraz, beste zerbaitetan pentsatu beharko genuke.

Sanz (1994) eta Sanz & Gomez (1995) aurrerako joan dira. Euskara antzinan VSO motako hizkuntza zela proposatu zuten. Mota honetako hizkuntza askotan gertatzen da aditzak ezin duen hasierako posizio absolutua eduki eta horregatik hizkuntza zeltetaneta semantikoetan gertatzen denean antzeko zerbait euskararen ere gertatu dela proposatu dute: aditzak denborarekin hizkiak hartu izana alegia. VSO hizkuntza guztiek aurrizki eta preposiziodunak direlarik euskarak ere izan beharko lituzke hipotesi hau aintzat hartzen badugu.

Lakarrak CVCVC motako hitzetan aurkitu du erantzuna CV- ezin daiteke erroa izan CVC erro monosilabikoaren murriztapenagatik. Norbaitek esan lezake erroek elkartzean lehenengo osagaia C- galtzen dutela baina aldaketa hau oso berria denez, beste kontu bat da. Hala, CV- hori ez da inoiz bakarrik agertzen eta ezta aditzaren eskuin aldean ere. Horregatik

pentsa daiteke aurrizkiak izango zirela eta ez zutela (beste elementu batzuk bezala CVC egituraren menpe egon, erroa bera baino elementu txikiagoa izatearen menpe baizik.

Ildo horretatik jarraituz, b-z hasten diren ondare zaharreko hitzak oso gutxi direla, guztiak *d-tik etorrira ere, ez dago konparatzerik b-z edo g-z hasten diren hitzekin. Dahulagoa da unibertsalki beste biak baino. Beste era batera esanda, AEZ-ean *d- asko falta dira, Mitxelenak AEB-an berreraikitakoarekin alderatuz. Lakarrak proposatzen du *e-VC eta CVVC aditzoin irregularretan egon daitekeela azalpena; suposatuz *d- bokalertzean tokatu denean galdu egin dela: Mitxelenak *e –VC > j- VC eta Lakarrak *e – dVC > *e-VC > j-VC. “Jan” bezalako aditz bat hartuz gero, /a/ bokal luzea edo geminatua eta aditzoin diptongatua azal litezke esanen batzuetan aditz erroen egitura CaCVC izan zela. Zehatzago izate aldera, *da- dVC. Horrela posible da *da- hitz hasieran, -la- hitz barruan eta -ra hitz amaieran aurrizki bera izatea.

Horrela, posible da pentsatzea euskarak aurrizkiak izan zituela *da-ren existentzia planteatu eta hau zilegiztatzeko badugu. Beraz, AE-n aurrizkiak egoteak euskara aitzinan VSO izanaren aukera zabaltzen du eta honek hasieran aipatu dugun I-Adj bezalako irregulartasunak azalduko lituzke.

21- ALDAKETA TIPOLOGIKOA EUSKARAREN DIAKRONIAN: Datuak eta irizpideak

Hizkuntzak aldatzen ari dira, etengabe, *deriba* delako fenomenoaren eraginez. Suposatzekoa da euskarak ere aldaketak jasan dituela, eta badaude horren aldeko frogak indartsuak. Aldaketok, hein handi batean elkarrekin lotutakoak dira, *deriba* deritzonaren adibide.

Euskara SOV da, aurrizkirik ez, Mitx □ bisilaboa... baina, badaude beste egoera batzuen aztarnak...

Euskara hizkuntza SOV da, horrek dakartzan ezaugarri ondorio (ia) guztiekin: aurrizkirik ez, aditz nagusia – laguntzaile hurrenkera... Hala nola, antzinako aldaketaren aztarnei dagokienez, euskararen ezaugarri tipologiko “tipikoak”: eranskaritasuna, morfologia ergatiboa, SOV ordena eta aditz joko aberatsa. Tipologia-irregulartasuna: “izena + adjektiboa” ordena, berez SOV hizkuntza bati ez dagokiokeena. Greenberg-ek (1963) ez zion garrantzirik eman.

Egin diren konparazio eta berreraiketetan AE-ri ere egotzi zaio SOV hizkuntza izatearekin lotutako ereduak. Hala ere, bi hipotesitan iradoki da antzina eredu kanonikoaz bestelako ezer egon zitekeela: batetik, Trask (1977), bestetik Gómez (1994) eta Gómez & Sainz (1995). Aditzaren osagaiaren azterketa eta aditzaren posizioa ziren eztabaidagai:

- (1) Trask-ek (1977) SVO > SOV aldaketa proposatu, aditz-aurrizkien ordena azaltzeko.
- (2) Gómez-ek (1994) eta Gómez & Sainz-ek (1995) aurrera jo, euskara VSO izan zela proposatu. Aditzak ezingo zuen hasiera absolutuko posizioa bete. Euskal aditzak zatikiak, aditzaurrekoak (“da” `orainaldia’...) edota pertsona adierazten duten klitikoak (“n-” `ni’...) hartuz joango zen denborarekin.

Honek galdera bat sorrarazten digu: non daude aurrizkiak eta preposizioak? Zeren eta VSO hizkuntza guztiak aurrizki eta preposiziodunak baitira.

Adjektiboaren “irregulartasunak”: pentsatzekoa da euskaraz garai batean ez zuela ADJ klase irekirik izan; izan ere, koloreak, hau da, Dixonen eskalan goren dagoen ADJ motetako bat, eratorriak (bel-tz), partizipioak (zuri, gorri, hori), erlatibozkoak (urdin) edo maileguak (berde) dira. ADJ gutxi izate hori VSO hizkuntza izatearekin dago lotua, hizkuntza horiek dute eta ADJ berezko bereizkuntzarik ez izateko. Gainera, euskaraz, IZEN-ADJ da ordena, eta hori ez da gertatzen SOV hizkuntzetan. VSO hizkuntzetan baino ez da beti betetzen IZEN:ADJ ordena.

Postposizioak eta atzizkiak izatea ezin hobeto dator kio SOV izateari. Baina postposizioak gardenegiak dira eta gutxiegi gramatikalizatu dira oso aspaldikoak izateko (Trask 1977). Hiru fasetan bezala ditugu:

- (1) “-en gain” (“horren gainean”...) erakoak. Gardenenak = berrienak.
- (2) “-rekin”, “-re(n) gatik” erakoak. Kamusten hasiak, baina oraindik gardenak.
- (3) “-k”, “-i”... erakoak. Ilunenak eta beraz, zaharrenak ziur aski.

Lakarra (2005): erator atzizkiak euskaraz izan badira, “-tasun”, baina hau oso urrun geratzen da finougriko edo koreera bezalako hizkuntza atzizkidunetatik. XVI. Mendean gaurko atzizki sistema eratu gabe zegoen. Atzizki sistema neurri oso handi batean literatur hizkuntzaren garapenarekin batera garatu da, eta hartan bakarrik garatu da ezagutzen dugun neurrian. Gainera, ez bakarrik ‘aurrizki > atzizki (sistema)’, baizik eta ‘X aurrizkia > X’ atzizkia (morfema konkretuak) tokiz aldatu direla argudia genezake, Australiako zenbait hizkuntzatan bezala: “-za-”, “-de-”, “-gi-”, “-da-”, “-le-”, “-la-”... > “-(t)z(a)”, “-de / -te”, “-gi/ -ki”, “-da / -t”, “-le”, “-la / -ra”...

Eranskari izatea bisilabismoarekin lotuta dago: japoniera, turkiera eta koreeran, esaterako, ia %100 dira bisilaboak lexiko arruntean. Alabaina, uralikoaren portzentajeak euskara zaharrenekin erkatuz, tipologikoki ere ezingo zatekeen hurbil izan. Silaba bakarreko hizkuntza zenean euskara, ezin eranskari izan. Zer zen orduan?

Beraz, non daude aurrizkia? Lakarrak CVCVC egiturako hitzetan aurkitu uste ditu, horietan CV- ezin izan baitaiteke erroa (**CV murriztapenagatik). Erroek elkartuen 1. osagaiari -C galtzen zutelak; aldaketa hau oso berria da (Erdi Arokoa). Gainera, CV- horiek ez dira inoiz bakarrik azaltzen, ezta hitzen eskubiko aldera ere. Aurrizkiak ziren. Erroak baino txikiagoak ziren edozein afijorekin hizkuntza gehienetan ohi legez. Baliteke lehenago ikusi ditugun “*la”, “*sa”, “*gi”... horiek antzinako aurrizkietako batzuk izatea.

Onera litzateke egiaztapenak aurkitzea (etimologiak). Lakarrak uste du baduela “*la” aurrizkirako. Erdi Aroan bokal artean “l” > “r” aldaketa gertatu:

- (1) Aurrizki gisa oraindik ere izango genuke, aditz arazle zaharretan dugun “-ra-” aurrizkian.
- (2) Tartean atzizki ere bihurtu zen: “honela”, “nola”, “bezala” gisakoetan, azken arrasto gisa.
- (3) Atzizki bera izango litzateke “-ra” (eta “-la” nahiz “-t”) adlatibokoa (‘nora’), gaur arte bizirik mantendua.

Aditzoinetako irregularitateak, “l”-z hasten diren ondare zaharreko hitzak oso gutxi dira; denak “*d”-tik etorriko balira ere, ez dago konparatzerik “*b-” eta “*g-” hasiera duten hitzen kopuruarekin, ez eta erreduplikazioaren ondoko disimilazioak (“*dodol” > “odol”) kontuan

hartuta ere. AEZ-eko “*d-” zenbait edo asko falta dira AEB-rako Mitxelenaren berreraiketan ez baita dagoeneko horrelakorik.

Lakarrak proposatzen du *e-VC eta CVVC aditzoin irregularretan egon litekeela azalpenaren zati bat, suposatuz “*d” bokal artean suertatu denean galdu egin dela, /d/ unibertsalki /b/ eta /g/ baino ahulagoa dela kontuan harturik:

Mitxelena: jVC < *e-VC

Lakarra: jVC < *e-VC < *e-dVC

“*e-dutz-i” > “eutz-i” > “utz” / “*dutz” > “*luz”, cf. “luze”.

“jin” < “*e-din” `etorri` > `bilakatu`, `bihurtu`, “nadin”... trinkoak gramatikalku ziren, eta artean “*edin” > “jin” lexikalku zen.

Urrats bat aurrerago: “jan” bezalako aditzetako “a” luze edo geminatua (“jaan”) eta aditz erro diptongodunetako bokalismoa azal daitezke pentsatuz batzuetan aditz erroan egitura Ca-CVC izan zela; zehazkiago, “*da-dVC”, non “*da” agian hitz hasieran “la-”\$ eta hitz barruan eta bukaeran “-ra” emango zuen aurrizki bera izan bailiteke:

“*e-da-dan” > “*e-a-dan” > “*e-aan” > “ja(a)n” vs. “*e-dan” > “edan”

“*e-da-dus-i” > “*e-a-dus-i” > “*e-aus-i” > “jausi” vs. “*e-duts-i” > “eutsi”.

Hipotesia bermatzeko “da-” aurrizki honen funtzioak zehaztea. Bestalde, “ra-” aurrizki historikoki fosildua (> “-erazi”, “-erazo” atzizkia) ezaguna genuen; “jarraitu”, “inarrosi”, “jardun”, “*ardano”, “urgatzi”... azaltzeko “*e-da-ra-CVC” proposatu behar dugu. Noizbait aurrizki gehiago ziren, garrantzi handia zuten aditzean eta gero galdu zuten, fosilduaz eta lexikalizatuaz. Proposa liteke aurrizki horiek (“da-”, “ra-”...) aditz lagunetik datozela.

Bokal harmonia lotuta dago eranskaria izatearekin; harmoniak funtzio demarkatzailea izan ohi du. Bokal harmoniarik ez dago euskaraz?

Trask-ek (1977, 1979) dio **ergatiboa** egitura pasibo batetik datorrela baina ez dago arrazoi berezirik horretan pentsatzeko. Ergatibotasun morfologikoa aski fenomeno azalekoa da, subjektu aktiboa perpausean dagoen beste IS bizidun batetik bereizteko erabiltzen diren estrategia bietako bat baino ez:

(1) 1. estrategia (ordena): “Jean bat Pierre” (ordena aski da egilea jakiteko).

(2) 2. estrategia (IS subjektua markatzea): “Jon-ERG Kepa hil du”.

Beraz, ergatibotasun morfologikoa V hasieran edo bukaeran duten hizkuntzetan agertzen da, ez SVO direnetan. Trask-ek (1977) proposatzen du, beraz, euskara ergatiboa jasotzeko SOV bihurtu behar izan zela. Hau ez da onargarri. Egia da ergatibo marka ezin zitekeela sor euskara VSO (edo VOS) egiturakoa zen aspaldi hartan baizik duela gutxi, edo SOV egiturakoa egin ondoren. Bestalde, “-k” fonologiaren aldetik ezin daiteke zaharregia izan, *-T ezinezkoa baitzen: noizbait *-CV izan zen, ziur aski “*-gV”, eta beraz, ez dago oztopo fonetikorik lokatibo bizidunei ezartzen zaien “*-ga” markarekin lotzeko (“-gana”, “-gandik”...). Munduko hizkuntza askotan agertzen da biziduntasuna eta ergatibotasunaren arteko erlazioa.

Nominatibo-akusatibo diren hizkuntzak osoki dira horrelakoak; ergatibo-absolutbio hizkuntzak, berriz, askotan defektiboak dira, alegia, ergatibo marka ez da non-nahi agertzen.

Fenomeno hau lotuta dago biziduntasun hierarkiarekin. Ergatiboa ez da beharrezkoa perpausean bi bizigabe daudenean, baina bai bizidun hautagai badira subjektu aktibo izateko.

Suposa dezakegu euskal deklinabidea eratzeko prozesua aski aurreratua zegoenean, 'lokatibo orokorra' ('lekua' nonbait) adierazten zuen marka bat erantsi zitzaiela izen bizidunei. Hasieran, jatorriz eta funtzioz, bizidunei bakarrik zegokien "-k" marka hau, orokortu egingo zen subjektu aktiboa adierazteko, edozein IS motarekin.

Trasken bidetik, onartuz gero aditz jokatueta da- aurrizkia dela eta gramatikalizazioaren kateari begiratuz (AURR<PREP<A.LAG<A.NAG), aspaldiko uneren batean euskarak ezin zuen SOV izan, aurrizkiak zituelako, eta gainera multzo-aditzak izan zituen uneren batean (*DAR-TOR) horrek dituen ondorio tipologiko sakonekin (pertsona-markarik ez, TAMik ez... Gainera, *with* hizkuntza izan delako aztarnak ditugu "oreagaz ura...", eta horrek ere aditz-jokatuak ez izateari begira jartzen gaitu, ezta kasu-sistematik ez izateari begira ere.

Bukatzeko, Munda (M) eta mon-khmer (MK) hizkuntzak, nahiz jatorri berekoak izan, ezberdinak dira. Funtsean M hizkuntzak aldatu dira jatorritik: deriba delakoan aurrera egin dute muturreraino.

Euskara egun M bezalako bada, pentsa dezakegu M hizkuntzek jasan dituzten aldaketa berak jasan dituela. M bezalako hizkuntzekin konparatu ahal izateak bi abantaila ditu:

- (1) Konparazioaren laguntzaz, antzina nolakoa zen jakin dezakegu (MK hizkuntzen antzeko): 5 bokal baino gehiago, silaba bakarrekoa...
- (2) Eredu bat eskaintzen dio berreraikitzaileari, bere lana oinarritzeko, kaotiko eta agian pertsonal izateko arriskutik apartatzeko modu bat.